



# BIDEETAN BARNNA

JOSEBA  
AURKENERENA  
BARANDIARAN

BOOKTEGI





# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

JOSEBA  
AURKENERENA  
BARANDIARAN

# bideetan barna

Ama-lurra maite duten guztiei,  
denon artean, gaurko ametsa  
biharko errealitate  
bilaka dezagun.

Marraskilaria: Lander Zurutuza

## Aitzin-solasa

Berrogeita hamaseiko otsailean sortu ninduten, elurte handiak Euskal Herria estaltzen zuenean. Hotz handia egiten zuen eta Jaizkibel mendiko basoak izoztu eta desagertu omen ziren. Horma-ziriak nonahi ikus zitezkeen. Horrela kontatu didate beti, bederen. Negu gorria igaro zelarik, udaberri ederra etorri omen zen eta kolore guztietako liliek euskal bazterrak alaitu zituzten.

Orduz geroztik, euskal herrietan hazi eta ibili naiz errati, beti bideetan barna. Garai hits hartan ukazioa zena odolean erein eta hazi zitzaidan, eta horixe izan da ene bizitza osoan egin dudana, ukazioari uko egin, eta ezinezkoa zirudien etorkizun oparo baten xerka euskal bideetan barna ibili.

Ene nortasun kolpatua sendatu eta sendotu nahi nuen, ene sustraiak aurkitu eta ene ama-lurraren ibilbidea ezagutu. Bizitzaren bideetatik barna ibiliz, Gipuzkoatik Lapurdira etorri nintzen, eta Urruñan ginuen gure habia ezarri. Iparraldeko lurraldeetan ere ukazioa zen nagusi. Euskara arras gibeldua, gure nortasuna ahantzia...

Pittaka-pittaka garai berriak iritsi dira. Esperantzari zirrikitu bat ireki diogu. Orain, belaunaldi berrien txanda da. Eta hil ala biziko sokatira honetan, soka askatzen ez dutenek dute irabaziko. Euskaldunok kaskagorrek girenez, eutsiko diogula sinetsi nahi dut nik.

Batzuetan etsipenak gainezkatzen nau. Gauzak ez doaz guk nahi bezala. Aldaketa azkarragoa, fiteagoa, nahi ginuke guk. Ziburuko kaio erratiari ber gauza agitzen zaio. Horrela etsipenez galde egiten diote:

Entzuten duka  
euskaldunen azken irrintzina?  
Entzuten duka  
lapurtarren azken arnasa?

Eta ustekabean, kaioak adorez beterik, erantzun:

Ez, ez duk azkena izanen,  
itsasotik datorkigun orroak  
udaberriaren itzulera  
iragartzen digu eta,

Eta horixe da gure esperantza, bihotzean atxikitzen dugun itzaropena. Negu gorriaren ondotik udaberri ederra etorriko zaigu, eta 1956ko otsailean gertatu zen bezala, elurra eta izotza urtzen direlarik, kolore guztietako liliek euskal bazterrak dituzte alaituko. Gaur bideetan barna gabiltzan euskaldunok bihar bedatse berria dugu ezagutuko.

Etsipen ororen gaintik esperantza nagusituko da eta gure gaurko euskaldunon ametsak biharko belaunaldien errealitate bilakatuko dira. Gaur, beraz, erein dezagun biharkoek uzta ederra bil dezaten. Eta hori atzeman bitartean, jarrai dezagun ibiltari euskal bideetan barna.

Joseba Aurkenerena Barandiaran  
Urruñan, 2017ko urtarrilaren 20an.

# Aita

Biziaren gurpilera ekarri gintuzuen,  
borroka-zelairako armak eman zenizkiguten,  
inguruko gertaerak ulertzeko  
bizi-kodea argitu zeniguten  
amak eta zuk.

Amak berea egin zuen  
goxotasunez, bihotz handiz,  
eta zuk irmotasuna, borrokarako grina  
zein beharrezkoak diren  
erakutsi zenigun, aita.

Biak bat zineten guretzat,  
txanpon beraren bi aldeak,  
eta ama gaueko ilunean  
joan zitzaigularik,  
zuk hor jarraitu zenuen  
tinko, fermu, atsedetik gabe...  
beti gure ondoan.

Gaur ez zaitugu gurekin,  
amarekin joan zara betiko,  
Mariren zelai berdeetan zaudete biak,  
Hodeiren zeru urdin ederretan,  
eta hortik gure alde  
begiratzen duzue aldiro.

Ama-lurrarekin egin duzue bat,  
eguzkiaren itzalean zaudete,

ilargiaren mazeletan barrena zabiltzate  
eskutik helduta.

Goizero, txorien txiotxoak  
zuen berri dakarkigu,  
udaberrian hosto eta lore berriak sortzean  
gurekin zaituztegu betiereko gurpilean.

Aita gurekin zaude,  
gure ondoan sentitzen zaitugu  
egunerokoan,  
egin beharreko urratsetan,  
eta horrela izanen zaitugu beti.

Milesker ainitz, aita,  
gure aita izan zarelako,  
aldiro gurekin zaudelako.  
Bihotzez maite zaitugu.  
Ez agurrik, aita.  
Egun handira arte.

# Albako Duke zitalari

Jadanik, bostehun urte dira  
Iruñean sartu zinela  
Europako armada  
handienaren buru.

Jadanik, bostehun urte  
herri honi morrontzaren kateak  
ezarri zenizkiola  
otso oste baten izenean.

1512ko ekainaren 16an  
izan zen zorigaiztoko eguna,  
Iruñeko harresietako ateak  
zeharkatuz barnera sartu zinena.

Gaizkiaren garaipena izan zen,  
ankerkeriaren odol besta,  
asimilazioaren hastapen latza,  
okupazioaren abiapuntu hitsa.

Inperio handi zitalak  
gure herria jan zuen hartan  
zu zien putre guztien buru,  
Gaztelako eta Aragoiko  
errege-erregina faltsarioen ordezkari.

Zuen mugak zabaltzea zenuten helburu,  
herriak eta herritarrak suntsitzeko gogo,  
gizona keta emakumeak makurtzeko xede,



Nafarroako Erresuma betiko menperatzeko gura.

Errekak odol putzu zenituzten bilakatu,  
krudelkeria erregeorde zenuten jarri,  
euskal hazia erresumatik zenuten ezabatu,  
zuen banderak eta mintzaira gurean ezarri.

Ez zineten izan soldadu noble eta adoretzu  
gupidarik gabeko borrero ankerrak baizik,  
ez zenuten deus onik ekarri  
odola, okupazioa eta umilazioa baino.

Zure arima erraturik ibil dadin  
sekulorun sekulotan, eternitatean,  
kiskalirik infernuko su garretan,  
mamu erratu bilakaturik oihan beltzetan.

Hego haizeak zure arima zikina  
basamortu gorienetatik barrena eroan dezan  
eta historiaren oroimenean  
zure izena madarikatua izan dadin mende luzetan.

Urrundik usaintzen dugu zure kiratsa,  
urrundik dakusagu zure itzal hitsa,  
zuregatik bizi dugu gaur ukazio gogorra,  
zuregatik ezabatu gaituzte herri libreen mapatik.

Ustel zaitez betiko  
isuri zenuen odol putzuan!  
Otso gosetiek zatika eta jan bezate  
zure bihotz zitala!

# Albizu Andereari

Doinua: Ara non diran.

I

Gure Anderea,  
Urruñan sortua,  
Albizu Andere handia,  
euskaingintzari  
ongi lotua,  
euskara beti ezpainetan.  
Euskal Herria maite baitzuen  
bere alde eman zuen bizia,  
beti gogoan, beti lanean,  
odol ta arima guzia,  
beti gogoan, beti lanean,  
odol ta arima guzia.

II

Urruñakoa,  
lili ederra,  
euskal zelaian sortua,  
gaua argitu  
zuen izarra  
Lapurdikoko baratzean.  
Irakaslea ta ikerlaria,  
itzultzaile ta idazlea,  
beti lanean, beti borrokan  
aritu zen gudaria,  
beti lanean, beti borrokan  
aritu zen gudaria.

### III

Gure Daniela,  
euskal lilia,  
euskararen laguna,  
bere herriari  
ongi atxikia  
bizitu da gure artean.  
Milesker zuri, Albizu Anderea!  
Milesker, Daniela, zuri!  
Gure buruan izanen zaitugu  
oroitzapenen euskarri,  
gure buruan izanen zaitugu  
oroitzapenen euskarri.

### IV

Bizitza honetan  
momentu txarrak  
tamalez dituzu ezagutu,  
zure bidean  
xoxo ta eperrak  
izan dituzu kantari.  
Azken unera arte aritu zira  
Euskal Herriaren alde,  
zuk egindako ildo guzia  
ez da izanen debalde,  
zuk egindako ildo guzia  
ez da izanen debalde.

# Ama

Euskal lurralde berdeak,  
hodei zuri garbiak,  
mendi gailur garaiak,  
erreka mehar aratzak  
ikusten ditudalarik  
zu zaitut gogoan,  
zu izan baitzara  
nire bizi-iturri,  
nire bizi-gidari,  
nire bizi-sari,  
sortu, hazi eta hezi  
egin bainauzu.

Horregatik,  
besteen sufrikarioa  
ikustean,  
zuzen kontrako zernahi  
nabaritzean,  
zure begi argiak  
datozkit gogora,  
zuk baitzenizkidan  
bizi-aurik oinarrizkoenak  
erakutsi:  
bizi-poza, elkarrekiko begirunea,  
aitzina egiteko grina....  
Euskal etxea husten ari zaigun honetan,  
neba-arreben arteko gerla-sua pizturik  
daukagun une lazgarri hauetan,  
ene gogora zure oroitzapena datorkit,  
xume, ezti, goxo, umel.

Une oro,  
bizia zailtzen zaidan aldiro,  
etsipena nigan hedatzen delarik,  
zure irakaspenak,  
zure bizi-alaitasuna,  
bihotzean ditut zimiko,  
barne-barnean,  
ene barrunbetan.

Bizitzaren ibilaldi luzea  
ez da kamutsa,  
ibilaldi horretan jasotako bizipenak  
ez dira alferrikakoak,  
egin beharreko bidea  
ez da itzulezina,  
eta izotza urtzen den lez,  
bideratu eta birbideratu  
egin daiteke, behin eta berriz,  
helmugarat iritsi arte.

Orduan bai,  
orduan egin beharrekoa  
burutua izanen da,  
ereindako hazitik  
sorturiko uzta ahitua,  
gazitutako itsasoa gainezka.  
Eta ibaia itsasortzen delarik,  
izpiritua baketsu, gogobeterik,  
ukanen dugu,  
zure antzera.

Ez zinen aberats sortu,  
baina bai langile eta gogotsu,  
eta horrek urratu zuen zure bidea,  
bizitzan hartu zenituen erabaki oro,  
eta jarraipenaz jantzirik  
gureganazi zenizkigun  
bizi-arauak, umil, eder eta lano.  
Eta orain  
bizitzaren bidegurutzean izaki,  
dena dut amets, oroitzapen eta asmo.

Beti zaitut gogoan,  
beti zaitut nirekin,  
egun ororen bilakaeran,  
tristuran eta bozkarioan,  
esperantzan eta etsipenean.  
Bihotzean zaitut,  
odolean zaitut,  
bizitzaren aldi orotan,  
eta nire ezpainetatik ere,  
otoitz baten antzera,  
hedatuko duen haizearen aldera,  
zure izena, zure izana  
ernatzen zaizkit,  
ozen eta ezti,  
arrunt eskergarri,  
oroitzapenen kabi,  
geroaren aldarri:  
ama.

# Ama-lurraren negarra

- 1.- Lurra dugu biziaren garra,  
lurra dugu laua eta malkarra,  
ez da ez eme eta ez arra,  
ez dezagun ahantzi lurraren negarra!
  
- 2.- Lurra da bizidun guztion sehaska,  
egarri garen guztion aska,  
ez doa mantso, beti lauhazka,  
lurra da guztion aterpe eta bazka.
  
- 3.- Lurra da gure lehen, orain eta geroa,  
neguaren hotza, udaren beroa,  
abere, landare eta gizakion bizi-leloa,  
gaur berriz dugu gogoetarako aroa.
  
- 4.- Lurraren kolkotik gara denok hazi,  
lur azalean gara goxo bizi,  
maitatzen eta zaintzen behar dugu hasi,  
etorkizunerantz egin dezagun jauzi!
  
- 5.- Baliabideen ustiaketan bilatu behar dugu oreka,  
gizakiaren eskua izan dadila lurrarentzat fereka,  
lurra oparoa da, ez ziztrin eta perreka,  
bizarazi ditzagun mendi, oihan eta erreka.
  
- 6.- Gizakia dugu lurtar zarpail eta zakarra,  
ama-lurraren ume trakets eta baldarra,  
desagertzeko zoriak sortu du bere sugarra,  
entzun dezagun behingoz ama-lurraren negarra.

## Antton Abadiaren kantua

Non zira zu laguna?

Non zira zu Adula?

Hemen naukazu zure zain

Aragorriko gazteluan

Urruñako itsas-hegian.

Oroitzen zaitut Adula

ene bihotzean zira betikotz,

itsasoko gesalean zira,

hodeien zuri edderrean.

Oroitzen zaitut Adula

ene bihotzeko sakonean.

Gauero argiak itzaltzean

datorkit gogora zure irria.

Oroitzen zaitut Adula

ene bihotzean zira betikotz,

Etiopiako oihanetan,

galla herriaren bizitokian.

Oroitzen zaitut Adula

ene bihotzeko sakonean.

Gauero loak hartzean

datorkit gogora zure irria.



Oroitzen zaitut Adula  
ene bihotzean zira betikotz,  
gure gazteluko bihotzerantz  
argitzen duen irudian.

Oroitzen zaitut Adula  
ene bihotzeko sakonean.

Gauero begiak ixtean  
datorkit gogora zure irria.

# Axularren itzalaren xerka

Urdazubitik Sararat

Saratik debruaren xilorat,  
Sarako elizatik  
Txerrenen unibertsitaterat.

Dena jakin nahi eta ezin,  
ahal dena ahal dela  
buruan sarturik,  
ahal dena ahal dela  
bihotzean estekaturik.

Txerren orojakile,  
giza jakintzaren lekuko,  
gizon eta emazteen hobenen maitale,  
Sarako Eskolako apezten lagun-hurko.

Sar zaitetze ene unibertsitaterat!  
---erraiten die debruak---  
Sar zaitetze ene xilorat!  
Bizitzak herio dakar,  
jakin-minak ausardia eta arriskua.

Eta sartu ziren apezak,  
irentsi zuten amua,  
erori ziren zepoan.  
Gillentena eta Joan Klaberia,  
Joanes Etxeberri Ziburukoa,  
Joanes Haranburu hurrena,  
horien gibeletik Ixtebe Hirigoiti,

Piarres Argainarats eta Haraneder,  
Voltaire, Silvain Povreau eta Materre,  
azkenik, Kristobal Harizmendi  
eta Axular haundia.

Denak du bere prezioa  
---dio Txerrenek---  
Ifernu xiloko unibertsitateak  
badu bere zerga,  
azkenak dit egin beharko ordaina!  
Guziek baiezka erranez  
mugitzen dute burua,  
azkena ez direla izanen pentsatuz  
zirikatzen dute zoria.

Sar eta jar gizonak!  
Sar, ikus eta ikas egin ezazue!  
Ainitz baita ikusteko!  
Ainitz baita ikasteko!

Sar eta jar gizonak!  
Lapurdiko apez haundiak!  
Debruak jakin badaki  
Salamancak ez dakiena,  
Sorbonan ez darakustena.

Ikasteak ez omen du tokirik hartzen,  
ezagutzeak bizimodua errazten du,  
jakiteak jainkotu egiten gaitu,  
ordaintzeak zuetako bati dio askatasuna kenduko.  
Baina ez larritu, ez izutu!  
Zuetako bat bakarrik date

atxilo geldituko dena,  
betirako ene morroia izanen dena.  
Beste guziak, berritz, libre eta jakitun!

Egunak eta gauak dira igaro,  
ikasi beharrekoa dute ikasi,  
jakitun dira apezak, jakintsu.  
Badakite jakin nahi zutena,  
bizitzaren eta heriotzaren berri daukate,  
izadiaren arau ezkutuak dituzte ezagutzen.

Baina, ai! Pagatu behar dute ordaina.  
bete behar dute xilorat sartzean  
eman zuten hitza.  
Hura pena eta domaia!  
Askatasun eza eta betiko morrontza  
dira heietako batentzat izanen.

Norberak bere larruan  
du sufritzen mina,  
norberak du lasaitzen  
bere atsekabea.  
Bihotzean dute oinazea,  
arriskuan beldurra,  
zortearen patuan zorigaitza.

Ilki zaitetze denak!  
---dio debruak---  
Azkena izan dadila neretzat!  
Emaidazue hurrenaren izena!  
argirat nahi baduzue atera.

Haranburu da irteten lehena,  
Gillentena da nire gibelean!  
Ondoren Gillentenak:  
Eta Hirigoiti nire atzean!  
Hirigoitik: Argainarats dut saihetsean!  
Argainaratsek: Etxeberri ene gibelean!  
Etxeberrik: Voltoire!  
Voltoirek: Pouvreau!  
Pouvreauk: Harizmendi!  
Harizmendik: Klaberia!  
Klaberiak: Axular uzten dut atzean!  
Axularrek: ---azkena dela jakinki---  
Eta nik azken laguna, zure morroia,  
nire gibelean!

Debruak kriseilua xilorat hurbildu  
eta Axularren gibelean  
itzal bat du ikusi.  
Azkena zelakoan, zaaast!!!  
zuen sartu zakurat.  
Huraxe zen bere ordaina,  
eternitaterako morroia.

Apezak joan ziren lasterka,  
Donibanerat eta Zibururat,  
Senpererat eta Azkainerat,  
Sararat Axular itzalik gabea.  
Eta horrela zaiku ibilki,  
urtez urte, mendez mende,  
Txerrenek kendu zion itzalaren bila.  
Noiz atxemanen? Noiz atxikiko?  
Axularren arima erraturik dabil,

bere itzala xerkatuz,  
eternitate aspergarritik  
ihes egin nahian.

Atxemanen ote du?  
Libertatea ote du ezagutuko?  
Euskal Herri gurea,  
Axular haundiaren antzera,  
galduta eta morrontzan dabil,  
askatasuna ekarriko dion itzalaren bila.  
Atxemanen ote du?  
Libertatea ote du ezagutuko?

Guk, gaurko euskaldunok,  
diogu ekarriko.  
Euskara biziko da,  
iraunaraziko dugu.  
Axular eta Euskal Herria  
libre izanen dira betiko.  
Halabiz!

# Baiona eta Iruñea,

Xaho eta Kanpion

- 1.- Baiona eta Iruñea,  
itsasoa eta lehorra,  
portua eta gorrea,  
olerkia bizirik bietan.
  
- 2.- Olerkia badabil  
Euskal Herri osoan,  
Nafarroan eta Lapurdin,  
Mezua bizirik dabil.
  
- 3.- Hemen bada herri bat,  
aitzina egin nahi duena,  
olerkia izan dadin  
herri honen mezulari.
  
- 4.- Antzina ta geroa  
gaur egun biltzen dira,  
Baionako karrikan  
ozen dabil gure kanta.
  
- 5.- Historia zaharreko  
herri zuhur honetan  
olerkia ez da agortuko  
bederen gure gogoetan.

6.- Auxtin Xahoren ametsa,  
Arturo kanpionen kemena,  
izan daiten gurekin  
olerkiaren kantuan.

7.- Ez da soilik mintzaira  
olerkian duguna,  
bihotza eta esperantza  
ditugu bide-lagunak.

8.- Maiatz dugu Baionan,  
ta Senperen Hatsaren eskola.  
Iruñeko anai-arrebak  
izan zaitezte ongi etorriak.

Baionan, 2016ko maiatzaren 25ean.  
Baiona-Iruñea Literatura Jardunaldiak



# Baionatik Bilborat

doinua: Baionatik Bilbora

1

Baionatik Bilborat

oihu bera bidean:

Euskal presoak kalerat!

Euskal presoak etxerat!

Baionatik Bilborat

euskaldunen oihua:

Euskal presoak kalerat!

Euskal presoak etxerat!

Baionatik Bilbora

nahikari berbera,

gure anai-arrebak

izan daitezen etxean.

Baionatik Bilborat

herri oso bat kalean,

bizi gaiten bakean

Euskal Herri askatuan.

2

Baionatik Bilborat

oihu bera bidean:

Euskal presoak kalerat!

Euskal presoak etxerat!

Baionatik Bilborat  
euskaldunen oihua:  
Euskal presoak kalerat!  
Euskal presoak etxerat!

Baionatik Bilborat  
askatasun zubia,  
euskaldunen ametsa  
kimu gazte berrien hatsa.

Baionatik Bilborat  
martxan doa herria,  
goizaldean piztu da  
gure itxaropen berria.

3

Baionatik Bilborat  
oihu bera bidean:  
Euskal presoak kalerat!  
Euskal presoak etxerat!

Baionatik Bilborat  
euskaldunen oihua:  
Euskal presoak kalerat!  
Euskal presoak etxerat!

Baionatik Bilborat  
martxan doa herria,  
ez gaiten geldi bertan,  
piztu dakigun geroa.

Baionatik Bilborat  
euskal jendea dantzan,  
anai-arreben arteko  
gero askearen bidean.

4

Baionatik Bilborat  
oihu bera bidean:  
Euskal presoak kalerat!  
Euskal presoak etxerat!

Baionatik Bilborat  
euskaldunen oihua:  
Euskal presoak kalerat!  
Euskal presoak etxerat!

Baionatik Bilborat  
herri oso bat oihuka:  
Euskal presoak etxerat!  
Mugi daitezen harriak!

Baionatik Bilborat  
oihu bat karriketan,  
Baionatik Bilborat  
nahi bera bihotzetan.

5

Baionatik Bilborat  
herri bat karriketan,  
Baionatik Bilborat  
harriak higitu nahian.

Baionatik Bilborat  
gogoan euskal presoak  
Baionatik Bilborat  
mugi daitezen harriak.

Baionatik Bilborat  
oihu bera bidean,  
Euskal Herri maitean  
piztu zaigu esperantza.

# Bardoitzako Anderea – 2014

doinua: Zibilak esan naute

## 1.- Goizeko zortzietan

ginen gu abiatu

Bardoitza ikustera

bidea ginuen hartu.

Lapurditik Gipuzkoara,

Nafarroan gero sartu,

Olazti herritik gora

Urbasara heldu.

## 2.- Lagun franko ginaden

espedizio horretan,

Bardoitzara iristeko

ginen irrikitan.

Otxoportilloko bidetik

bihotza sugarretan

ta azkenik ikusteko

irudia harri xurietan.

## 3.- Bardoitzako Anderea

jarri diote izena,

gure arbasoek egina

ordokian dena.

Zeru ta lurren artean

kokaturik dagoena,

iraganeko altxorra

topatu duguna.

4.- Gure begien aurrean

han zen irudia,  
zerutik ikusteko,  
bera da ludia.

Gure zaharrek bazekiten  
zein den giza bidia,  
harri xuri horietan  
zuten idatzia.

5.- Ekiari begira

bizia aurrera,  
heriotza gibelean  
ilunaren aldera.

Zeru-lurrak bildu zituzten  
Bardoitzako ordokira,  
Amalur eta Mari  
euskaldun gogora.

6.- Urruneko mendietan

sorginak kantari,  
bi eskuen alboetan  
dira bi zutarri.

Arrano Beltza dugu hegaka  
askatasun aldarri,  
Bardoitzako Anderea  
lurraren zaindari.

7.- Hankak zabalik ditu,  
erditzen da ari,  
Amalur haur minetan,  
ekia dantzari.  
Ilargia dugu lotan,  
gauaren gidari,  
itsaso urrunetan  
esperantza kari

8.- Lapurditik joan ginen,  
bihotza alegera,  
eta han gurtu ginuen,  
euskaldun antzera.  
Orain denok badakigu  
Urbasa aldera  
joaiteko behar dela  
izan sinesbera.

9.- Amalurren alaba  
zaitugu Eki,  
bizitzaren jainkosa,  
hala zira, baiki!  
Euskal Herri gurean  
gurtzen dugu beti,  
zure oroitzapena  
hil da maleruski.

10.- Berpiztu beharko dugu

Mariren hazia,

gaurko Euskal Herria

da arras gazia.

Izarretan idatzia

da zure grazia,

belaunaldi berrian

ernaltzen hasia.



## Bardoitzako Mariri

Bizitza eta heriotzaren sekretuak  
hire baitan biltzen ditun,  
sortzearen eta hiltzearen misterioak  
hiregan gurtzen ditinagu.  
Hi izan hintzen bizi-iturri  
aro zaharretan,  
eta gaur ere, bizi-hats,  
bizi-nahi eta bizi-bide zabala haiz  
gure barrenetan.

Hire burua, hire gogoa  
mendebaldeari daukan begira,  
heriotza eta bizi berri baten lehen urrats  
den ilargiari begira,  
Ilargi, Iretargi, Ilazki, Argizagi  
baitun hire geroa,  
bizi-gurpilaren azken eta lehen bulkada.

Alua, hire alu emankorra,  
izaki eta gizaki ororen sehaska miresgarria,  
ekialderi daukan begira,  
Eki distiratsu eta bizi-emailean itzal.  
Aitzinean, aurrez aurre,  
Putxerri mendi sakratu zaharra dun,  
hire zango zabalduen artean  
erakusten dunan bizi-hegalia.  
Haratago ditun, ainitzez haratago,  
urruntasunean biziki urrun,  
lanbro eta langarren artean ezkutaturik,  
Ama Itsaso zahar, zabal eta mugagabea.

Urbasako Bardoitza ordokian itsatsirik hago,  
Amalur babeslearen kolkoan barreiatu-rik,  
bertako kare-haitz zuri-zuriez marraztu-rik,  
gure arbasoen beso-eskuek  
begirunez eta itxaropenaz irudikatu-rik,  
Euskal Herriko zero aldakor eternalari begira  
marraztu haute,  
eguneko eguzkiari  
eta gaueko ilargiari eta izarrei so.  
Eguk hastapenetan, Ortzik gero,  
hire begirada lausotu diton,  
hire begitarte ferekatu,  
hire etengabeko erditzea argitu.

Euskaldunon sekretuen gordelari haugu, Mari,  
gure arbasoek bizitutako aro zaharren lekuko,  
gaurko amildegi sakonaren jakile,  
euskal etorkizun aberatsaren piztaile.  
Ama haugu, Mari,  
ama, amaxi, emazte, alaba eta alabatxi.  
Hiregan dinagu gogoeta,  
hirekin dinagu egiten amets,  
hi haizelako gure bilakaeraren  
ikus-entzule mutu,  
gure izatearen aldarri,  
zeruko izarren artean  
dir-dir, keinuka ari zaigun jainkosa.

Hi izan hintzen lehen,  
orain ere bahaiz  
eta gero haiz izanen  
iturri eta ibai kantarien uretan,  
mendi eta basoetako argi-ilunetan,  
soro, zelai eta pentze berdeetan,  
itsaso zabaleko aparretan,  
zeru urdineko izarretan,  
gure bizi-gogo eta bihotzetan,  
eta baita ere, nola ez,  
euskaldunon odol eta ametsetan,  
askatasuna errotik maite duen  
Herri kementsu honen  
egitasmu eta esperantzetan.

# Begiraleak, erein eta sortu

## I

Donibane Lohizunen sortua,  
euskara eta euskal nortasuna  
galtzen hasiak zirelarik.  
Maidalena Jauregiberri, Elise Aramendi.  
Maidalena Brevet eta Antoinette Lakarre  
emazteki kementsuen gogotik.

Orduz geroztik dugu Begiraleak  
Lapurdiko itsas-hegian,  
itsasargi, bidegile  
eta euskal haziaren eraile.

Erein eta sortu,  
zaindu eta zabaldu.

## II

Gogoa, lana eta kemena  
biltzen dira Begiraleak elkartean,  
hor izan dira lagun eta langile  
Piarres Lafitte eta Xabier Iratzeder,  
Piarres Larzabal eta Telesforo Monzon,  
Betti Betelu eta Xanpun.

Dantzak, kantak eta usaiak,  
bertsoak, gastronomia eta antzerkia,  
gorputza eta arima,  
bizi-poza eta bizi-nahia.

Erein eta sortu,  
zaindu eta zabaldu.

### III

Donibanen ez dugu aisa,  
erdal enbatak indarrez jotzen du  
baina hor dira, gaur egun ere,  
betiko kemenez, betiko gogoaz,  
gizon eta emazte,  
zahar, haur eta gazte.

Hor ari dira lanean Begiraleak,  
sortzen, egiten, zaintzen,  
burutzen, gidatzen, begiratzen,  
euskal hazia itsasaldeko lurretan ereiten.

Erein eta sortu,  
zaindu eta zabaldu,  
iraun eta irabazi.

# Belaontzia

William Blake

Itzulpena: Joseba Aurkenerena

Hondartzan nago, zutik.  
Goizaldeko haize leunaz  
belaontzi bat igarotzen da;  
ozeano alderantz doa.  
Edertasuna da! Bizitza da!  
Hari begira lotzen natzaio,  
hodeiertzean desagertzen den arte.

Nire ondoan den baten batek  
Joan da! ---erran du.  
Joan al da? Norantz?  
Nire bizitzatik joan da,  
besterik ez!

Haren masta beti bezain garaia da,  
kroskoa aski sendoa dauka  
eta haren izate osoa  
eramateko modukoa dirudi.

Nire bizitzatik desagertu da,  
baina desagertze hori  
niri dagokit,  
ez belaontziari.

Nire ondoan den baten batek  
Joan da! ---erraten duen une berean,  
beste zenbaitek hodeiertzean  
agertzen dakusate.,  
eta beraiengana hurbiltzean,  
Heldu da! ---diote,  
bozkario handiz.

Horrelakoa da heriotza.  
Ez dago heriotzarik,  
bi ertzetan dauden biziak baino.

# Bizitza ametsa

(Ixabel Sarasolaren gorazarrez)

doinua: "An hini a garan" kantu bretoia

1.- Sortu orduko badoa  
bizitzaren uretan  
gizakion bidea  
ixil-ixilkan.  
Herioren besoetara  
denok joango gera,  
Herioren besoetara  
guztiok biltzera.

2.- Errenteriko alaba,  
Lezora ezkondua,  
Gaintzan egin du kabia  
eta bere sendia,  
Arantxa eta Josetxo,  
Jokin eta Karlos,  
lau seme-alaba  
eta Joxe senarra.

3.- Baserrian badira  
neke, lan eta penak,  
Jaunak bedeinka dezan  
Ixabel Gaintzakoa.  
Beste bizirako  
dihoan bidea  
zeharka dezala  
Ixabel gureak.



4.- Adiorik ez zuretzat,  
bizirik egongo zera,  
denon bihotzetan,  
Gaintzako sukaldean.  
Adiorik ez zuretzat  
ta muxu haundi bat,  
adiorik ez zuretzat  
ta beti arte haundia.

## Bizitzaren katea

laz, aurten, geurtz.

Atzo, gaur, bihar.

Arbasoak, gurasoak, seme-alabak.

Haiek, gu, zuek.

Izan zirelako gara,

garelako izanen dira.

Izan ziren, beraz, bagara;

bagara, beraz, izanen dira.

Amalurretik iturria,

iturribegitik erreka,

errekatik ibaia

eta ibaia itsasora.

Amaren sabeletik haurra,

haurraren gorputzetik

gaurko gizona edo emakumea,

eta biharko aitatxi-amatxi zaharra.

Arraultzetik txita, adarretik hostoa,

hodeitik euria, berotik uzta

kimu berrietatik landare berriak,

landare berrietatik lore ederrak.

Etengabekoak dira izadian,

bizian, dakuskigun adibideak.

Egunerokoak darakuskiguna

dugu bide zuzena.

Gogotik ezagutza,  
ezagutzatik jakituria.

Maitasunetik elkar-bizitza,  
elkar-bizitzatik kimu berriak.

Sugeak, behin eta berriz, isatsa jaten du.  
Mateotxistu, apez ehiztaria, hor dabil,  
nehoiz harrapatuko ez duen erbiaren gibeletik,  
korrika, lasterka, antxintxika..., baina ezin harrapatuz.

Katea betidanik daukagu, betirako da.  
Katebegiak dira aldatzen direnak,  
gure artetik desagertzen direnak,  
joaten eta berritzen direnak.

Eta gu denok, kate eternal horren  
katebegiak gaituzu,  
hazten eta berritzen ari garenak...  
desagertzen ari garenak, hiltzen ari garenak.

Biziak heriotza dakar eta heriotzak bizia.  
Kateak hor dirau, betidanik eta betirako.  
Zen, da eta date,  
izan, izaten eta izango.

# Ekiaren eguna

doinua: San Joanen zortzikoa

Gora ekiaren  
egun haundia!  
Gora ekia!  
eta gora bizia!

Gora ekiaren  
egun haundia!  
Gora ekia!  
eta gora bizia!

Lurraren alaba,  
jo ezazu gailurra!  
Zeruko gaina  
hortxe baita.

Lurraren alaba,  
jo ezazu gailurra!  
Zeruko gaina  
hortxe baita.

Lizarra altxatu!  
Etsaia uxatu!  
Sugarrek dute  
iluna argitu.

# Ekibegia zeru gorenean

doinua: Solferinoko itsua

I

Ekia dabil zeru gainean  
egun luzea ekarriz,  
ibil dadila hodei artean  
iluna betiko igorritz,  
iluna betiko igorritz.

II

Ekibegia ortzi handian,  
gizona berriz lurrean,  
jainkosa ederra distira artean  
su gurpilaren bidean,  
su gurpilaren bidean.

III

Gauean sua piztuko dugu  
jainkosaren izenean,  
garbi ditzala gaitz eta okerrak  
ilargiaren azpian,  
ilargiaren azpian.

IV

Dantza-jauzika suaren gainean  
indar gaiztoak bidaliz,  
kanta dezagun denok batera  
bihotzez eta eztarriz,  
bihotzez eta eztarriz.

V

Eki-lorea ate buruan  
sorgin zitalak uxatuz,  
eritasunak ta heriotza  
gure artetik bialduz,  
gure artetik bialduz.

VI

Udagoiena zaigu iritsi,  
urtero da hemen guretzat,  
Eki jainkosak eman diezagun  
osasun ona denontzat,  
osasun ona denontzat.

VII

Egun ta gaua, zuri ta beltza,  
ilargia eta ekia,  
biziarentzat ditugu biak  
zorionaren ibaia,  
zorionaren ibaia.

## Errekari begira

I

Ura badoa,  
etengabea badoa,  
poliki, mantso, astiro...  
baina badoa  
itsaso alderantz.

II

Ez dirudi  
etengabeko ibilaldi horretan  
inoiz bukatuko denik.  
Aurrera doa,  
beti itsaso alderantz.

III

Hondoan ikus daitezkeen harriak  
geldirik daude,  
goroldioz estalirik.  
Gaietik ura doa,  
etengabea, itsaso alderantz.

IV

Ertzetako zuhaitzen adaxkek  
ubidea dute estaltzen,  
ezker eta eskuin aterpe emanez.  
Haien gerizpean ura badoa,  
uhain ttipiak eginez, itsasorantz.

V

Adaxketan txoriak dira kantari,  
erreka era badoa kantari,  
ura harrien gainetik doa,  
murmurioen artean ura badoa,  
kantuz doa itsaso alderantz.

VI

Ur gardenetan islaturik  
nire pentsamenduak ditut ikusten,  
gogoetak zaizkit ernaltzen,  
eta urarekin batera badoaz,  
badoaz bizitzaren itsasorantz.



## Euskal sorginei

- Zuei

euskal mendietako

sorginei

.....

- Zuei

akelarreetan biltzen zineten

sorginei

.....

- Zuei

euskaraz mintzatzeagatik

erreta izan zineten

sorginei

.....

- Zuei

zuen bizimodua defenditu zenuten

sorginei

.....

- Zuei

euskal sinismenak gorde zenituzten

euskal sorginei!!!

- Eskeini nahi dizuet

ilargi beteko gau eder hontan,

zuen oroimenez, zuen omenaldiz,...

eta gure etorkizun askearen

itxaropenaz

burututako oroitzapen moduko hau.

# Euskaldunon izarra

doinua: An hini a garan kantu bretoia

## 1.- Itsasoan barrena

do a bretoi ontzia,  
mendebalderantza,  
Euskal Herri alderat.  
Hantxe ikusiko du  
maite duen neska,  
hantxe ikusiko du  
euskaldunon izarra.

## 2.- Haizeek daramate

ontzia aitzina  
eta izarrek diote  
zoin den norabidea.  
Hantxe ikusiko du  
maite duen neska,  
hantxe ikusiko du  
euskaldunon izarra.

## 3.- Urruneko ahotsek

oroimena dakarte  
eta oihartzunek  
errepikatzen dute.  
Laster ikusiko du  
maite duen neska,  
laster ikusiko du  
euskaldunon izarra.

4.- Uhinek irauli dute

bretoi ontzi ttipia,

hondora eraman dute

amodio ezina.

Ez du nehoiz ikusiko

maite duen neska,

ez du nehoiz ikusiko

euskaldunon izarra.

5.- Ez da nehoiz iritsiko

euskaldunon lurrerat.

Kantuek eramanen dute

amodioaren ametsa.

Ez du nehoiz ikusiko

maite duen neska,

ez du nehoiz ikusiko

euskaldunon izarra.

## Gaurko ezina biharko irria

- 1.- Milaka urte iragan dira  
iduzkia sortu zenetik,  
milaka urte iragan dira  
goitik behera.
  
- 2.- Milaka urte iragan dira  
iluna sortu zenetik,  
zeruan izarren dirdira  
pitztuz lurbira.
  
- 3.- Zeruetako jainkosa  
ilargi miresgarria,  
gaueko argi airosa,  
argizagia.
  
- 4.- Gaueko hor dabil errenkan,  
gaua berea baita,  
bizitzaren bide luzetan  
agindu nahian.
  
- 5.- Euskaldunon Mari handia,  
ludia sortuz geroztik  
berek ditu bizia,  
ilargi eta ekia.
  
- 6.- Egu, Inko eta Amalur  
zeruan dira dantzari,  
Hodei, Ortzi eta Basajaun

oro ibiltari.

7.- Sugaar dabil tximist artean,  
Eate haizeak ufatuz,  
ortzantza Aitorren etxean,  
hortxe kantatuz.

8.- Erleak dira gogo gidari  
Ortzadarreko bideetan,  
euriarekin gudan ari  
azeri ezteietan.

9.- Laminak errekan kantari  
urrezko ileak orraztuz,  
orrazi emaile dugu Mari  
eta lur beilari.

10.- Marik egin zuen euskara,  
mintzaira guztiz ederra,  
euskaldunei emana,  
altxor zaharra.

11.- Askatasuna dugu maite,  
tamalez kendu daukute,  
baina, berreskura dezagun,  
bedatsean date.

12.- Marik erakutsi bidea,  
segi dezagun aitzina,  
geroa naroa izanen da,  
independentzia.

13.- Sorginak ari dira dantzan,  
Akerbeltzen inguruan,  
akernoa edalontzian,  
poza bihotzean.

14.- Milaka urte iragan dira  
iduzkia sortu zenetik,  
gaur ezina den guztia  
biharko irria.

15.- Milaka urte iragan dira  
euskara sortu zenetik,  
gaur menpe den Euskal Herria  
aske date bihar.

# Gernikaren gorazarrez

Hirurogeita hamabost urte igaro diren arren  
euskaldunok gogoan atxikirik daukagu  
zorigaiztoko apirilaren hogeita sei hartan  
Gernikan egin zuten basakeria.

Arratsaldeko lau eta erdietan  
gudako aingeru beltzak  
Gernika aldera abiatu ziren,  
bonbak gainezka zituztela barrenetan.

Hiru orduz, hiru orenez,  
bonbardatu zuten Gernika,  
hiru orduz, hiru orenez,  
metrailatu zituzten gernikarrak.

Eta arratsa etorri zen,  
inoizkoa baino ilunagoa zen arratsa,  
eta hauts hodeiak joan ziren,  
inoizkoak baino ilunagoak ziren hodeiak.

Herio hegaziak joatean,  
herioaren hauts hodeia desagertzean,  
Gernika azaldu zen, berriz ere,  
oraindik ikusteko gai zirenen begien aurrean.

Hura zen hondamendia!  
hura zen tristura eta sarraskia!  
hura debakle eta triskantzak!  
hura txikizio eta akabantza!

Gernika hila zen,  
txikituta, birrinduta,  
apur-apur eginda, desagertuta,  
iduriz mapatik betiko ezabatuta.

Eta hondakinen artean,  
kale izan ziren haietan barrena  
odol erreka isurtzen ziren  
sufrikariozko itsaso zabalera.

Sufrezko egurats kargatu hartan,  
su, ke eta hautsaren artetik,  
hizorian zen herri oso baten negarrak,  
aieneak, suspirioak eta hasperenak.

Herio oihuak han-hemenka,  
hurbileko senidea bilatzen duen garrasia,  
hil-urren direnen kexa ozena,  
semea hilotz topatu duenaren samina.

Hori ez da jadanik Gernika!  
Lehen Gernika zen, orain infernua,  
hilotzez beteriko eremu goibela,  
gernikarren hilerri ankerra.

Milaka dira hildakoak,  
nonahi pilatutako gorpuak,  
milaka dira zaurituak,  
oinazez blaituriko mamuak.



Bizirik iraun dutenak  
erdi hilik kaleetatik barrena,  
lagunak, senideak... bilatuz  
minez josirik dabilta.

Zer dira horrela dabiltzan horiek?  
Biziak? hilak? zaurituak? arima galduak?  
Zer dira noraezean nekez mugitzen diren horiek?  
Azken gernikarrak? azken bizidunak?

Eta mugagabeko sufrikario horretan,  
erortzen ari diren azken etxe suntsituen artean,  
neskatila batek bide bazterretik hartu duen loretxo zuria  
ama zenaren gorpu gainean pausatzen du.

Loretxo zuri hori, neskabila dardarati hori  
Gernika sarraskituaren isla dira,  
hondakinetatik abiatuak  
sortuko den herri eternalaren isla.

Gernika, Gernika!  
Euskaldunen odolezko ibaia!  
Gernika, Gernika!  
Iraun nahi duen euskal hiria!  
Gernika, Gernika!  
Euskal Herri hilezkoen hazia!

## Gero askea

...badator, badatorkigu,  
...heldu da, heldu zaigu,  
...badakargu,  
nekez baina badakargu!

Haizeak belarrira xuxurlatzen digu,  
bedatseko kimu berriak begibistan ditugu,  
bihotza itxaropenez gainezkatu zaigu,  
birikak aire berri garbiaz puztu.

Sufrikarioa eta odola gibelean  
gera daitezen,  
sufritu dutenak, bidean galdu ditugunak  
gogoan atxiki ditzagun.

Aukera berriak azaldu zaizkigu,  
xendra berriak zabaldu,  
hautu berriak ditugu,  
Euskal Herriak aitzina behar du.

...geroa badator, badatorkigu,  
...askea heldu da, heldu zaigu,  
...askatasuna dakargu,  
nekez baina badakargu!

# Goiz eder honetan

doinua: Qué linda está la mañana

1.- Goiz argi ta eder honetan  
etorri naiz zu agurtzera,  
izarren arteko gaua  
ilunpeetan uztera.

2.- Hodeiek eraman naute  
zure etxeko atarira  
eta zu bertara atera  
nerekin besarkatzera.

Errepika:

Zatoz, bai, zatoz nerekin!  
Goizaldia esnatu da,  
xoriak dira kantari  
ta iduzkia goian da.

3.- Bidean barna joan gira  
eskutik estekaturik,  
irria gure ezpainetan,  
bihotzetan aterpeturik.

4.- Mendietako etxoletan  
eginen dugu kabia,  
zuhaitz ederren artean  
hantxe gure familia.

Errepika:

Zatoz, bai, zatoz nerekin!

Goizaldia esnatu da,

xoriak dira kantari

ta iduzkia goian da.

5.- Jainkoak dauku emanen

seme-alaba ugari,

bizia da loratuko

ta hegaliak ageri.

6.- Amodioa da piztu

gaur gure ametsetan,

iraun dezan betiko

ernai gure bihotzetan.

Errepika:

Zatoz, bai, zatoz nerekin!

Goizaldia esnatu da,

xoriak dira kantari

ta iduzkia goian da.

# Gudronezko sugea

Azkenean etorri da,  
zorigaitzez iritsi zaigu  
gudronezko sugea,  
asfaltozko heriotza.

Urruñako autobidearen irteera  
ttipia omen zen,  
arriskutsua zela zioten,  
eta horregatik  
bazterrak dituzte suntsitu,  
belar soroak txikitu  
eta gudronez bete.

Larrea etxalteko laborariek  
ohiko belardietatik  
urrundu behar izan dituzte behiak,  
gorozetan zizareen xerka  
zebiltzan kurrilo ugariak  
aideratu dira, uxatu dituzte.  
Elikagaia beste nonbait  
xerkatu beharko dute  
hemendik aitzina.

Parean dugun etxeko leihotik  
ikusten dugu triskantza,  
entzuten dugu sugearen etorrera,  
usaintzen dugu mundu baten amaiera.

Hor dabilta langileak

kasketa buruan, txaleko horia soinean.  
Hor dabilta makinak,  
soro eta belazeak betiko hondatzen,  
orain arte berde izan dena beltzatzen.

Negar malkoak lerratzen zaizkigu  
masailetatik beheiti,  
ederra zena itsusturik eta  
bazka zena asfalto bihurturik  
ikustean.

Eta kexu denari  
ertzoa deitzen diote,  
gibelkoia, erromantiko zoroa.  
Aurrerapenaren izenean  
dena da zilegi,  
dena egiten ahal da.  
Aurrerapenaren aldarean  
Soro eta zelaiak,  
zuhaitz, mendi, bide eta errekek  
ditugu sakrifikatzen.

Norat doa gizakia?  
Zer espero du ama-lurraren aldetik?

# Hodeiertzari begira Nanoen Bordako muinotik

1

Eguna bukatzeaz da

eta gauari deika.

Arratsa da nagusi,

iduzkia lotara doa

bere amaren kolkora.

Ama-lurra erne dago,

goxo eta harkor,

iduzki alabaren aiduru.

2

Ilargia ere laster da

zeruan agertuko.

Iduzkiaren ahizpa,

Ama-lurraren beste alaba,

zeruan da nagusituko.

Egunaren akabera da,

gauaren sortze berria,

Gauekoren tenorea.

3

Nanoen Bordako muinotik

larreak, pentzeak eta baserriak

ditugu ikusten.

Hodeien erresuma gure gainean dugu

eta sasiaren erresuma gure oinen azpian.

Eta gu hor gira sasietatik

ikusmena lausotzen zaigun

hodeiertzari begira,

Lur, su, aide eta ur,  
Mari, Egu, Hodei eta Sugaar,  
ez da nehoiz hasierarik izan,  
ez da nehoiz amaierarik izanen,  
eta neurgabeko denbora horretan  
izan da euskara,  
izan gira euskaldunak.  
Ama-lurrak babes gaitzan betiko.



# Ihiztari Beltzaren kantua

Doinua: Filipinetako azkenak

1.- Nora hoa,

zizpa hori eskutan?  
Haizea badabil,  
alde batetik  
bestera etengabea.  
Haizea badabil,  
alde batetik  
bestera etengabea.

2.- Nora hoa,

zakurrak hartuta,  
mendietan barrena,  
erbien gibeletik  
zizpa eskutan jarrita?  
mendietan barrena,  
erbien gibeletik  
zizpa eskutan jarrita?

3.- Nora hoa

Ihiztari Beltza?  
Bideetan barrena,  
korrika, lasterka,  
erbiak iheska dabilta.  
Bideetan barrena,  
korrika, lasterka,  
erbiak iheska dabilta.

4.- Nora hoa  
lainoen azpian?  
Eatek du ufatzen,  
orbela mugitzen,  
zuhaitz handien artean.  
Eatek du ufatzen,  
orbela mugitzen,  
zuhaitz handien artean.

5.- Nora hoa?  
Harrapatuko al duk?  
Lehena eta oraina,  
orain eta geroa,  
atzeman ezinak dituk.  
Lehena eta oraina,  
orain eta geroa,  
atzeman ezinak dituk.

6.- Nora hoa,  
erbiaren atzetik?  
Zizpa eskuan harturik,  
orak unaturik,  
geroaren gibeletik?  
Zizpa eskuan harturik,  
orak unaturik,  
geroaren gibeletik?

7.- Nora hoa  
euskal mendietan?  
Ez hadi akitu!  
Ez hadi gelditu!  
Jarrai mende luzetan!  
Ez hadi akitu!  
Ez hadi gelditu!  
Jarrai mende luzetan!

## Ilargi amandrea

Gaueko erregina,  
iluntasunetako printzesa,  
euskaldunen amandre zaharra,  
nire urrats galduen  
lagun nekagabea.

Zuri esker,  
maitasuna dut ezagutzen,  
zuri esker  
edertasuna dut miresten,  
zuri esker  
dut ikasi bizitzaren pozaz gozatzen.

Nire bideetako argia,  
nire malkoen adiskide isila,  
nire poz guztien gidaria.

Hori dena zira zu niretzat,  
euskaldunon ilargi amandre zaharra.

# Inaute

lho, iyo, ino  
ihote, iyote, inote  
ihau, iyau, inau  
ihaute, iyaute, inaute  
ihauteri, iyauteri, inauteri  
hitz batez:  
hartzaro.

Hartza negulotik da iratzartu,  
ama-lurra zaigu ernaldu,  
ekia da zeruan indartu,  
uztak dira ugari sortu,  
gizakiok badugu zertaz elikatu.

lho, iyo, ino  
ihote, iyote, inote  
ihau, iyau, inau  
ihaute, iyaute, inaute  
ihauteri, iyauteri, inauteri  
hitz batez:  
hartzaro.

Ziklo berrian gara sartu,  
mendietako elurrak dira urtu,  
urtea zaigu biziberritu,  
bedatse ederra zaigu piztu,  
bihotza zaigu berriro poztu.

lho, iyo, ino  
ihote, iyote, inote  
ihau, iyau, inau  
ihaute, iyaute, inaute  
ihauteri, iyauteri, inauteri  
hitz batez:  
hartzaro.

Maskarada herriz herri dabil Xiberoan,  
Miel Otxin eta Ziripot Lantzeko plazan,  
joaldunak Ituren eta Zubietako bideetan,  
momotxorroak Altsasuko odol putzuetan,  
mozorrodunak Tolosako kaleetan.

Urte, elurte, eurite  
Eate, inauste, inaute  
suberri, ekiberri, eguberri  
haziberri, bideberri, urteberri  
bedatsaro, ereintzaro, biziario  
jaiaro, iraularo, uztaro.  
Joan zaigu Olentzaro,  
joan zaigu Subilaro  
eta jin zaigu Hartzaro.

# Iratzederri

Iratzeder, Iratzeder,  
Jainko deiaren eramaile,  
euskal aberriaren sustatzaile,  
euskararen ekintzaile.  
Iratze gorrietan sorturiko izarra,  
itsas gesaletan blaitutako donibandarra,  
zu izan zira sua eta garra,  
Lapurdiko gidari suharra.

Gizon ona, euskaldun sutsua,  
euskaltzale handia, abertzale gartsua.  
Hori izan zira gure artean,  
horrela zaitugu oroitzapenean.  
Gurutze sainduari emana,  
euskara zaharrari buru-belarri  
zerbitzari gartsu eta fidel izana.

Joan zira gure artetik,  
jadanik ez dugu zure  
mintza goxoa entzuten.  
Zu gabe Belok ixilik dago  
Euskal Herriarentzat,  
arrozturik, mutu.  
Ez dizute maite zenuen  
mintzairaz agurtu,  
ez diote herri zahar honi  
errespeturik agertu.  
Haatik ez dute  
zureganako dugun  
amodioa lehortu.

Iratzeder, Iratzeder,  
izan zaitez beti gurekin,  
maite zenuen Donibane Lohizuneko uhainetan,  
Larrun menpeko belar-soro berdeetan,  
euskaldunon kantu eta dantzetan,  
antzezlan, bertso eta olerkietan.  
Zauden tokitik,  
Euskal Herri gaineko  
izarrez beteriko zeru horretatik,  
izan zaitez  
euskal arimaren gordari,  
herri zahar hau askatasunerantz  
daraman bidearen beilari,  
Lapurdiko euskara eta  
euskaldun guzien betiko zaindari.

## Itsasoko olatuetan barrena

Itsasoko olatuetan barrena  
dantzan dabilen botila  
da gure Herria,  
haizeek iragan ilun batetik  
etorkizun argi batera daramatena.  
Orain hitsa ahantzirik  
salbatuko da gure botila.  
Ez du itsas-hegiko labarretan joko,  
ez da betiro ozeano zabalean  
noraezean ibiliko,  
askatasunezko hondartzetara  
iritsiko da  
eta bertan da gosoki baratuko.  
Hori Euskal Herriaren  
Hegoa eta Iparra biltzean  
gertatuko da.  
Olerki hau horretaz zinez  
sinesten duten ororentzat  
egina da.



## Izadia beti berritzen ari

Garai ilun zaharretatik  
Ezagutu dugu,  
haren baitatik sortuak gara,  
haren kolkoan  
bizi izan gara beti.

Hor zen,  
hor da  
eta hor date.

Sehaska eta bizi-iturri zaitugu,  
Ama eta sortzaile,  
Hasiara, oraina eta geroa,  
izaki guzti-guztien garapen eta bidea,  
bizidunon geriza eta aterpea,  
materiaren iturburu eta itsaso zabala.

Hor zen,  
hor da  
eta hor date.

Hamaika urtetan baliatu dugu,  
Hasieratik dugu ustiatu,  
Eta orain badirudi  
behar dugula sarraskitu.

Etengabe ari gara hondatzen,  
jadanik ustiapen maila guztiak  
ditugu gainditu,  
eta, hala ere,  
horretan darraigu,  
izadiari bereak eta bost galdatzen,  
ezinezkoa dena eskatzen,  
izarbela hondamendira eroaten.

Hor zen,  
hor da  
eta hor date.

Gizakiak jainko nahi du izan,  
Gizakiaren diru-nahiak ez du mugarik,  
bereak bere nahi ditu  
baita bereak ez direnak ere.

Betirako dela pentsatzen du,  
izadiaren errapetik  
gero eta gehiago  
ahal duela zurrupatu.

Eta horretan ari da,  
horretan dabil gau eta egun,  
etengabeki,  
atsedenik eman gabe.

Hor zen,  
hor da,  
eta hor date.

Denak du bere muga,  
orok du bere amaiera,  
eta Amalur haserre dago,  
izadia matxinatzen ari zaigu,  
izarbelaren oreka xerkatzen du.

Gizakia da haren oinazeren iturri,  
gizakia da suntsitzaile eta gupidarik gabea.  
Izadiak denok berdinduko gaitu,  
izadiak osagai ororen oreka du ekarriko,  
eta horretan ere, gizakiaren gainetik da igaroko.

Izadia  
hor zen,  
hor da  
eta hor date;  
gizakia da  
izanen ez dena.

# Iz-etik hondamendira ote?

I

Iz, izan, izar

izotz, izaro, izaki, gizaki.

Iz-etik sortu ginen,

iz-etik urera, uretik lurrera

eta lurretik sortu zen izakia,

lurretik sortu zen gizakia.

“Izan zirelako gira,

girelako izanen dira”

erran zuen behin olerkariak.

II

Ur, elur, zur

hezur, lur, lurtar, amalur.

Iz ur egin zen

eta ur elur, lur.

Ura izan zen bizigai lurrean,

urak zituen sortu indarra eta kemena,

urak urratu zituen bideak eta zelaiak,

haranak, ordokiak, eta ibarrak,

urak estekatu zituen mendiak.

### III

Hitz, hitz egin, hiltun

hizketa, hitzaldi, hizkera, hizkuntza.

Iz-etik hitzera,

hitz, ele, mintzoa, berba.

Hitzak gizakia zuen moldatu.

Era, euskara, erdara, mintzaira,

euskara, euskaldun, Euskal Herri

Hitzak zituen gizon-emakumeak lotu,

euskarak zituen euskaldunak sortu.

### IV

Har, harri, harridura,

harrigarri, harkaitz, harresi, harrijasotzaile.

Har-etik harrira

eta harritik harresira.

Harria bilakatu zen babes eta aterbe,

harriz egin ziren bordak eta etxeak,

gizakiak harria lanabes zuen bihurtu,

harriak gizakia zuen indartu,

harrizko herria zen sortu.

V

Herri, herritar, herrikide,  
herrigabe, herrimin, herribide, aberri.  
Eta harria herri egin zen,  
Harri eta Herri,  
Harrizko Herri hau,  
Euskal Harria, euskararen herria  
kantatu zuen Gabriel Aresti handiak  
eta Jurgi Oteizak gogoeta hori  
harrian zuen landu.

VI

Mun, munto, muino,  
mendi, menditsu, mendikate, hondamendi.  
Herriak mun-etara ziren igo,  
mendietan harriz ziren gotortu,  
iturri eta erreken sorbegietan zuten edan,  
euskara herrietara zuten eraman,  
amalurra euskaraz zuten jantzi,  
mun, munto, muino, mendi  
gerizpe zena ez dadin bilaka hondamendi.

## VII

Hil, hilabete, hilgai,  
erail, hilezkor, hilezin, (h)ilargi.  
Hastapenetan zen iz,  
bizia zena gero zen hil,  
hasiera zuenak amaiera zuen ekarri,  
hilezina zena hilezkor bihur bedi!  
Gizakiok heriotza zor diogu biziari,  
noizbait sortzen denak noizbait beharko du hil,  
euskara, Euskal Herria,... euskaldunak ez ditzala erail!

## VIII

Iz, izan, izaki, gizaki.  
Lur, elur, lur, amalur.  
Hitz, hizketa, hiltun, hizkuntza.  
Har, harri, harkaitz, harresi.  
Herri, herritar, herribide, aberri.  
Mun eta hil, XXI. mendea  
ez bekigu euskaldunoi bilaka  
ez akabera, ez hondamendi.  
Bizi bedi euskara!  
Bizi bedi Euskal Herri!

# Joanes Zuhigaraitxipi kortsarioaren kantua

doinua: Gartxot koblakariaren kantua

1.- Oskorria zabaltzen da  
itsasoan,  
euskal mutilak ontzian  
badoaz urrunera.

2.- Lapurdiko portuetan  
dira negarrez,  
neskak eta aita-amak  
agurra eginez.

3.- Haizeak betetzen ditu  
ontziaren oihalak  
txopatik du bultzatzen  
itsaso zabalera.

4.- Egunak iragan dira  
ta ez alferrikan,  
gizonak dira begira  
zilarrezko itsasoan.

5.- Askatasun iduzkia  
hegoien artean,  
euskaldunen turutak  
olandresen ibarran.



6.- Zuhigaraitxipi haundia  
etsaiei oldartzen,  
bolboraren usaina  
mutilen bihotzetan.

7.- Hendaiarraren itzala  
aginte-zubian.  
Aupa euskaldun mutilak!  
Garaipena gurea da.

8.- Presta itzazue ezpatak  
eta arkabuzak,  
olandresak jakin dezan  
euskaldunak girela.

9.- Suzko lainoek estaltzen  
dute itsasoa,  
kainoien burrunba  
urrundik entzuten da.

10.- Gizonak dira borrokan  
su ta garretan,  
ezpatak eskuetan,  
nonahi etsai odola.

11.- Urdina zen zeru ederra  
orain da gorria,  
lano zegoen itsasoa  
herioz jantzi da.

12.- Mutilak erortzen dira  
odol putzuetara,  
Joanes kapitain haundia  
beti borroka erdian.

13.- Orenak iragan dira  
triskantza horretan,  
baina euskaldun mutilak  
garaitzen ari dira.

14.- Kapitain olandresa  
dute kolpatu,  
lurrera erori da  
etsaien bandera.

15.- Zuhigaraitxipi haundia  
deika ari da:  
Aitzina euskal mutilak!  
Garaipena gurea da.

16.- Urruneko itsasoan  
isiltasuna,  
Lapurdiko itsas gizonak  
Irabazle dira.

17.- Uhain basa gainetik  
ekaitz betean,  
itzulbidean badoa  
euskaldunen ontzia.

18.- Haizeak ufatzen du  
indar beteaz,  
ontziaren oihalak  
harro-harro dira.

19.- Denbora azkar pasatzen da  
euskal ontzian,  
haizeek baitaramate  
Euskal Herri alderat.

# Joseph Abeberri auzapez ziburutarraren omenez eta oroitzapenez

Arrangoitzeko hazia  
larogoita hamabostean sortua,  
herritarren artean hezia,  
besteen zerbitzuan ondua  
giza baloreetan hasia,  
aita-amen goxoan gizondua,  
zapalketa ororendako hesia,  
bizitza osoan izandua.

Aita zuen maisu eta bidelagun,  
gizon eta emazteen libertate ikur,  
askatasun eza ez hemen eta ez inun  
jasaten ez zuen gizon leun.

Joseph izan zen auzapez gisako eta  
Ziburuko herritarren itxaropen eta  
nazi eta heien lagunendako aurkari zital  
borrokaren bidean, ez eguzki eta ez itzal.

Erresistentzian zen sartu buru-belarri,  
borrokalari ainitzen bizia salbatu zuen sarri,  
eskuindarrez gainezka zen gizarte hartan harrigarri,  
Ziburuko altxorrean ezkerreko perla eder eta zoragarri.

Etsaia erne zen eta aiduru,  
mendekuz eta esker txarrez mukuru,  
Abeberri zeukaten heien amorruaren buru,  
hori zuten, bederen, uste eta aburu.

Zakur amorratuek zuten atxilotu,  
Baionako jendarmerian egurtu eta txehetu,  
herio-treinean Baionatik Austriara bialdu,  
berrogoita lauko azaroaren 18an zioten bizia kendu.

Olerki honen bidez nahi zaitut oroitu  
eta zure lan handia bihotzez eskertu,  
zu bezalako gizonak behar ditugu goratu  
ez daiten nehoiz holakoak berriz gertatu.

## Korrika 2015 Urruñan

Urepeletik dator,  
Xiberoa eta Baxenabarre gibelean utzi ditu,  
Nafarroako eta Lapurdiko lurak zeharkatu berri ditu  
eta Gipuzkoarako bidean  
Urruñara heldu zaiku.

Badator eta badoa  
19. Korrika,  
Badator eta badoa  
Euskal Herri osoa  
euskarazko harrabotsez betez,  
euskaraz bizi nahi duen herri  
honen gogoa piztuz,  
eta aske eta batu bizi nahi duen  
ama-lurraren bihotza  
esperantzaz indarberrituz.

Korrika dator,  
Korrika heldu zaiku  
baita Urruñara ere.  
Garaia da euskaldunok  
aitzina egin dezagun,  
EUSKARAREN ALDE EGOTETIK  
EUSKARAREN ALDE EGITERA PASA GAITEN.  
Geroa euskaraz dator,  
geroa euskaraz jantziko da,  
Euskal Herriak euskaraz bizi nahi baitu.

Korrika dator,

Korrika heldu zaiku

baita Urruñara ere.

Txupinazoa botatzeko ohorea

eskaini didazue

eta bihotzez eskertzen dizuet.

Baina jakin, denok dakigu

Urruñan izan direla eta

direla gaur egun ere

## Euskaltzale handiak. Beraiei gure esker ona!

Ez dut ahantzi nahi

zendu berria dugun

Daniela Albizu euskaltzale handia.

Dagoen tokian dagoela,

ziur naiz gaur Korrikan

ibiliko dela, gurekin batera.

Aupa Daniela!

Ez zaitugu ahazten.

Beti egonen zira gure artean,

Urruñako plazan, herriko bestetan,

mutxiko edo fandangoetan, Sokorrin,

euskararen aldeko agerraldi guzietan,

zanpatuaren aldeko ekitaldietan...

Muxu handia zuretzat!

Korrika badator, korrika badoa.

Txupinazoa ere badator.

Euskarak Euskal Herri osoa

alaitasunez eta kolorez

jantzi dezan.

Gora euskara, gora Korrika

eta gora Urruña euskalduna!



# Kuxkuxtu, aldarria eta kantu

doinua: Pello Joxepe

I

Aspaldi huntan hortik dabilta  
Kuxkuxtu txarangakoak,  
besta eginez, nunahi kantatuz,  
horiek dira heien lanak.  
Gaur Nafarroan, bihar Lapurdin  
baina beti alegerak,  
San Ferminetan edo Baionan  
ibiltzen dira urruñarrak.

II

Kuxkuxtu dugu Urruñakoa,  
sortzez Herburu auzokoa,  
euskal umore ta nortasuna,  
besta eder ta gisakoa.  
Horixe dugu gure artean  
kuxkuxtarren lekukoa,  
txaranga ederra osatzen dute  
parrandarako nahikoa.

III

Ez da bestarik gure lurretan  
Kuxkuxtu talderik gabe,  
arratsez, gauez edo goizetan  
beti kantuan dirade.  
Giro ederra ezartzen dute  
bazter guzietako labe,  
horretarako abilak dira,  
parrandazaleen bilgune.

IV

Luzaz ibili daitezela

gure artean kantatzen,

euskal arimak behar baititu

Kuxkuxtukoak, hain xuxen.

Libre nahi duen Herri honetan

kantua esperantza izan zen,

askatasuna atzeman artean

zuek kantuz, han ta hemen.

# Mari jainkosari

Hedoietan barrena zabilta,  
ortzadar koloreanizdunaren azpitik,  
euskal lurraldeak,  
lau aharik darraiaten suzko organ,  
ekialdetik mendebalderantz igaroz.

Eskuan igitaia daroazu,  
paparrean marrazturik  
lauburu ezkerbirakari gorria.  
Igitaiak hedoiak zabaltzen dituzu,  
euria, txingorra, elurra sortuz  
eta ama-lurrera ekarriz,  
euskal herriak biziaz bustiz  
eta zuri ederraz estaliz.

Bizia dakarkiguzu, Mari,  
bizia zaitugu, biziaren ereile,  
euskaldunon iragan, orain eta gero,  
bizitza eta heriotzaren arteko zubi,  
iraun nahi duen  
Euskal Herri zahar honen  
pizgarri, itxaropen eta amets.

# Mariren itzulera

Doinua: Behin batean Loiolan

Gipuzkoako doinu zaharrear

1.- Urte zaharrak joan dira

ta berriak etorri,

euskaldunen indarra

ahultzen zaigu ari.

Non da garai bateko

mendietako Mari?

Non da garai bateko

jentilen Euskal Herri?

2.- Izadia maite dugu,

Lurraren haurrak gira,

Iduzki ta Ilargia

gure odolean dira.

Non da garai bateko

mendietako Mari?

Non da garai bateko

jentilen Euskal Herri?

3.- Antzinate zaharrear

Mari genuen gurtu,

Amalurren kolkoan

negua zen elurtu.

Non da garai bateko

mendietako Mari?

Non da garai bateko

jentilen Euskal Herri?

4.- Leize-zulo ilunetan

Hartza lagun genuen  
ta basajaun sendoek  
gidatzen gintuzten.

Non da garai bateko  
mendietako Mari?

Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

5.- Guk ez genuen behar

ez urre, ez dirurik,  
natura zen guretzat  
bizi-ondasun bakarrik.

Non da garai bateko  
mendietako Mari?

Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

6.- Larrunen ta Sokorrin,

Aiako Harri zaharrear,  
bizi ziren jentilak

Bidasoaren ertzetan  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?

Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

7.- Arrotzekin batera  
ukazioa zen etorri,  
sinesmen zaharra zuten  
betirako ehortzi.  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?  
Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

8.- Mariren erresuma  
zuten betiko ilundu,  
gizakien bihotzetan  
sos nahia zuten piztu.  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?  
Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

9.- Eate, Maju, Atarrabi,  
Hodei, Gaueko, Itzularri,  
Sugaar, Mikelats ta Mari  
joan ziren itzuri.  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?  
Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

10.- Laminek galdu dute  
urrezko orrazia,  
sorginek ahantzi dute  
Ortziren irrintzia.  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?  
Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

11.- Hauxe da hondamena,  
hauxe dugu tristura,  
gaixo euskaldunak!  
esklaboen mentura.  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?  
Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

12.- Gure mintzaira zaharra,  
Marik eman euskara,  
ainitzek ahantzi dute,  
hau da gure akabera!  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?  
Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

13.- Larrungo mazeletan,  
pottoka ta ardien bila,  
oraindik aiduru dugu  
Altzateko Jaun jentila.  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?  
Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

14.- Euskal makila eskuan,  
Mari handiak utzia,  
bihotzean sugarra,  
zain dauka gure herria.  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?  
Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

15.- Iluna emeki doa,  
heldu da egun berria,  
ta euskaldun jentilenzat  
gure ongi-etorria.  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?  
Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?



16.- Larrungo gailurrean  
Marik du piztu sua  
ta askatasun haizeaz  
marruz doa betizua.  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?  
Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

17.- Bizkaian ta Araban,  
Gipuzkoan, Nafarroan,  
Lapurdin, Xiberoan,  
Nafarroa Beherean.  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?  
Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

18.- Euskaldun erraietan  
pizten ari da garra,  
ama-lurra askatzeko  
nahia eta desira.  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?  
Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

19.- Gure lur-itsasoetan,  
euskal gogo-bidea,  
dantzugu oihu bakarra:  
Gora Euskal Herri askea!  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?  
Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

20.- Berriz piztu dezagun  
euskal sinesmen zaharra!  
Mari izan dadila  
bide-egile suharra!  
Non da garai bateko  
mendietako Mari?  
Non da garai bateko  
jentilen Euskal Herri?

Gure eskuan daukagu  
askatzeko giltza,  
laster izanen baita  
euskaldunen garaitza.

## Martin Perez Isasa gudari gaztea gogoan

Hodei artetik agertu ziren  
burrumba handia eginez,  
Durango aldera jausi ziren  
izua zabalduz, beldurra emanaz.

1936ko irailaren 25ean izan zen  
deabru beltzek hautatu zuten eguna,  
Durango zigortuz nahi zuten  
kikildu betiko aberri euskalduna.

Bonba zikinak jausi zituzten  
kaleetan, Ezkurdi, geltokian...  
jendea hiltzea bilatzen zuten  
eta izua hedatu Euskal Herrian.

Horietako bonba batek eztanda  
egin zuen Ezkurdi pilota-plazan  
han gelditu ziren hilik, eztanda,  
hamabi lagun, tragedia handia bazan.

Hegazkinak, behin eta berriz, ziren itzuli  
bonba batzuen ondoren, besteak zituzten jaurti,  
Durango gaixoa zen guztiz iraungi,  
deabru beltzek heriotza zuten ezarri.

Durango haien ibilerak  
ziren maingu eta galduak,  
noranahi zihoazen iheska  
heriotzatik alde egin nahian lasterka.

Balbe ankerra zegoen pozik  
Durango ederra, Tabira zaharra,  
larriki zen kolpaturik,  
dena zen triskantza eta sugarra.

Ezkurdi frontoian erori zen bonba  
izan zen aunitzen herio ekarle,  
gure osaba Martin han hil zuena,  
opari ustel eta samin emaile.

Martin gaztea zen eta arras ameslari  
hemezortzi urteko gazte borrokalari  
Otxandiano batailoiko kide eta gudari  
une hartantxe frontoian pilotan zen ari.

Han utzi zuen gaztetasuna betiko,  
hantxe eman zuen azken arnasa,  
haren gorputz txikituta dugu lekuko,  
Ezkurdin eman zuen azken hatsa.

Zenbat horrelako Durangon,  
Gernikan eta Otxandion,  
Amorebietan eta Bilbon,  
etsai zitalen jukutria eta kapritxo.

Geroztik zenbat odol eta laino,  
zenbat tortura eta espetxe,  
zenbat zapalketa eta ukazio,  
Euskadi ez zen ez aterpe eta ez etxe.

Urte luze hitsak igaro ahala  
borreroa biktima omen da  
eta biktima borreroa dala  
diote, gezur handi galanta.

Zabal ditzagun begiak,  
egin zigutena ez dezagun ahaztu  
zabal ditzagun belarriak,  
gurean justizia ez dezaten akatu.

Bizi bedi Euskal Herria,  
euskaldunon etxe eta biltoki,  
egin dezagun kabi berria  
independentziarako bide egoki.

## Mikel Kanpo Barandiaranekiko hil ondoko solasa

Mikel laguna,  
hire heriotzaren berriak  
ustekabeen hartu gaitik;  
egia esan, ez genian espero.  
Gaztea hintzen, sasoitsua,  
biziaz betea, gartsua...  
eta oraindino hire onena  
ematerakoan hintzelakoan  
geundean denok.  
Baina Heriok,  
berak jakinen dik zergatik,  
goiz xamar deitu hau.

Biziaren bidean bazeudek  
nehork ezagutzen ez dituen korapiloak,  
nehork ulertzen ez dituen arrazoiak,  
biziaren eta herioaren misterioak dituk,  
eta gure buruan sartzen ez den  
arrazoi ezkutu horietako bati jarraiki,  
gure artetik eraman haute.

Hi Mikel, beti izan haiz gizon atxikia,  
familiari, herriari, gizarteari...  
Maite izan dituk bizia, izadia,  
Euskal Herria, gizateria...  
arrunt garbi baihuen inguratzen  
eta egiten gaituen osotasunaren  
ezinbesteko atalak zirela.

Gure artean bide laburra egin duan arren,  
berrogeita hiru urterekin joan baihaiz,  
hire bide hori urrats sakonez urratu duk.  
Eta orain bidean bakarrik utzi gaitularik,  
hik urratutako ildoak norabidea argituko ziguk.

Nehoiz ez diagu hire kemena ahantziko,  
nehoiz ez zaiguk hire irribarrea itzaliko,  
nehoiz ez diagu hire adiskidetasuna alboratuko,  
hi noizbait loratuko den hazia izan baihaiz,  
hire emaztearen, hire semeen eta hire lagunen  
bihotzetan, behin eta berriro, ernalduko dena;  
hi noizbait ama-lurra bustiko duen hodeia izan baihaiz,  
ezagutu haugun guztion oroimenean  
beti heze, epel, sendo iraungo duena.

Hirekin igarotakoak  
gure barnean gordeta ditiagu,  
hirekin bizitutakoek  
oroitzapenean bizirik zirautek.  
Negar malkoek gure masailetatik beheiti  
irristatzen zaizkiguk errekek eta ibaiak bilatuz,  
amorruek gure erraiak kiskaltzen ditik  
hire joate goiztiarra ezin endeleгатuz.  
Baina hi Mikel, dagoeneko,  
horren ororen gainean hago,  
ama-lurraren kolkoan goxo-goxo,  
iragana, oraina eta geroa  
nahasten diren bilgune magikoan,  
biziaren eta herioaren korapiloa  
askatzen den urruneko bidegurutzean,  
elur zuriz estalitako

mendi gailur garai ederretan.  
Eta handik begiratzen diguk,  
hire begi bizi zorrotzez,  
hire irribarre alaia  
ezpainetan loraturik duala.

Begira ezak hire familia:  
Mertxe ama, Zelia emaztea,  
eta Txomin eta Beñat semeak.  
Begira gaitzak hemen  
utzi gaituan orok,  
hire kemenaz, pozaz  
eta bizinahiaz  
indar gaitezen.

Baina zertarako gure hitz hauek?  
Mintza dadin bizia,  
mintza daitezen errekek, mendiak,  
iturriak eta belar-soroak.  
Etengabeko gurpila,  
nehoiz hasi ez zena,  
nehoiz ez duk amaituko.  
Eta gurpil horren baitan,  
bidearen bihurgunean,  
gure zain egonen haiz hi, Mikel,  
tinko eta alegera,  
gogor eta kementsu,  
goxo eta maitagarri,  
biziaren bidea urratzean  
beti egiten jakin duan bezala.



Euskal lurrak babes hazan,  
euskaldunon jainko-jainkosek,  
Urtzik, Marik, Mikelatsek, Hodeik, Eurik...  
euren gerizpean har hazaten.  
Hil, ez duk deus hiltzen.  
Ez duk hiltzen eguna,  
ez duk hiltzen iluna,  
iragan baino.  
Agur laguna,  
agur urrats-kidea,  
agur Mikel.  
Egun handira arte!

## Miñabaitako azken mugalaria

Urruñan sortua,  
Miñabaita etxalde ttipian,  
egunez artzain,  
gauez kontrabandista,  
bihotzez mugalari.

Arrotzek ezarri sasi-muga  
ongi ezagutzen zuen  
eta Hegoaldetik Iparraldera  
ihes egin behar zuenarentzat  
bilakatzen zuen askabide.

Antton Etxebeste urruñarra,  
euskaldun gudari,  
ehundaka iheslariren  
aparteko mugalari.  
Zu izan zira abertzaleentzat  
gaueko izarra,  
eguneko iduzkia.

Ziren zeruko izarren artetik  
gida ezazu libertaterantz  
gure ama Euskal Herria!

## Nafar haizeak

Nafar haizeek ufatzen dute  
Erresumako lurretan,  
harkaitzak eta mendi gorenak,  
dena kolpatzen zainetan.  
Arrotz haizeak ixildu dira  
mendialde ta Erriberan,  
ixilik dira lotsaturikan  
herria ukatu zutenak,  
ixilik dira lotsaturikan  
herria ukatu zutenak.

Tximist txar batek jarri zituen  
agintarien aulkian,  
orduz geroztik ditugu izan  
boterea atxiki nahian.  
Euskal izenak kendu zituzten  
herri eta hilarrietan,  
lotsarik gabe hor izan dira  
lapurtuz hainbat urtetan,  
lotsarik gabe hor izan dira  
lapurtuz hainbat urtetan.

Bazen garaia, bazen ordua,  
herritar zintzoen aroa,  
mendi bazterrean sortu dira  
garia eta garoa.  
Printzesa zena korrika doa  
euskal lurak utzirikan,  
Burgos aldera doa lasterka

nafar dirua patrikan,  
Burgos aldera doa lasterka  
nafar dirua patrikan.

Bete dituzten haien sakelak  
billetez eta urreez,  
bete dituzte heien bihotzak  
euskaldunekiko herraz.  
Betiko zela pentsatzen zuten,  
haiena zela erreinua,  
bazter guztiak nahasi zituzten  
haientzat gure erdeinua,  
bazter guztiak nahasi zituzten  
haientzat gure erdeinua.

Ikas dezagun anai-arrebak  
zein den askapen bidia,  
elkartasunaren hegaletan  
egin dezagun kabia.  
Gure arteko aldeak utzi,  
egin dezagun bakia,  
anaitasunak emanen digu  
askatasun haundia  
batasunak ekarriko digu  
askatasun haundia.

# Nafarroaren Eguna, askatasun habia

Hemendik, hortik, handik...

bideek Baigorriara daramate.

Hemendik, hortik, handik...

jendeak dira Baigorriara hurbiltzen.

Nafar, baxenafar, lapurtar eta zuberotar,

gipuzkoar, bizkaitar edo arabar

plazan dira bilduta jada,

kabalkada ederra hastear da.

Herriko Etxean ikurrina,

ondoan nafar bandera zaharra.

Nafarroaren Eguna jada abian da,

2014ko ezinbesteko hitzordua.

Anhauzeko joaldunak aitzinean,

Baigorriko dantzari trebeak segidan,

txarangak, musikariak, fanfarreak,

jendez gainezka dira karrikak eta plazak.

Eliza ondoko plazara dira arribatu,

Karmelean, Koldobike eta Gotzoneren irrintzinek

dituzte denak goxoki errezibitu,

Lakaren bertsoek digute denoi bihotza alegeratu.

Euskal dantzak, kantu alaiak eta jauziak

dira pilota plaza handiaz nagusitu,

aldarrikapenezko garrasi eta oihuak

dira denon bihotzez jabetu.

Han dira zahar-gazteak, neska-mutilak,  
adiskideak eta senar-emazteak,  
zuberotarrak eta bizkaitarrak,  
zazpi euskal herrietatik joandako euskaldunak.

Euskararen doinu guztiak dira entzuten,  
nafarrera kantaria, zuberera bitxia,  
bizkaiera fierra, lapurtera alegera,  
gipuzkera txistukaria eta baxenafar dantzaria.

Doinu ainitz kantu bakar batendako,  
kolore ugari ortzadar aberatsarendako,  
erreka eta ibai ugari itsaso handiarendako,  
era guztietako euskaldunak aberriarendako.

Han ziren Elorri eta Mattin kantari,  
Mikel eta Oiher dantzari,  
Pettan eta Beñat soinu-jole,  
Aña eta Ixabel jauzi-emaile.

Ondoren manifestazioa karrikaz karrika,  
euskal presoan aldeko aldarriak,  
afixak, txartelak eta oihuak airean,,  
atxilo ditugun anaia-arrebak gogoan.

Xapito azpiko herri bazkarian  
kantuak eta dantzak dira nagusi,  
askatasun garaia iragartzen duten  
elestak, solasak eta berbaldiak.

Erramun Martikorena, Mixel Bizkai,  
Leitzako trikitixa eta Kuxkuxtu txaranga,  
Laka bertsolaria, Karmele irrintzilaria...  
dira euskal eragile eta gidariak.

Kanpoan kontzertuak, erromeriak,  
parranda eta dantza agerraldiak,  
jotak, fandangoak eta arin-arinak,  
irabaztezin den herri honen bizi-hatsak.

Bizi dadin luzaz Baigorri!  
Bizi dadin Nafarroaren Eguna!  
Bizi daiten gaurko kanta, dantza, jauzi eta aldarriak!  
Biharko askatasunaren aitzindariak.

Zuri Baigorri, ene kantua,  
iragan hitsa bihur dadin etorkizun aberasgarri,  
esperantza izan dadin libertate hegali,  
Euskal Herriaren amets ororen kabi.

# Noingo izar galdua

Noingo borrokaldian hil ziren nafar gerlarien gorazarrez.

doinua: Solferinoko itsua.

I

Haizeak dakar

Iruñea aldera

Nafar armadaren porrota,

harresietako

begiraleak

jadanik urduri dira. -2 aldiz-

II

Inda zaharretan

eta plazetan

solasaldi bakarra da.

Ama gaixoak,

emazte gazteak

ari dira negarretan. -2 aldiz-

III

Ordu luzetan

aritu dira

Noingo ordokietan,

zizpa ta kainoi

burrumba handian,

odola gora eta behera. -2 aldiz-



#### IV

Gure mutilen  
oihu-irrintzinak  
mendietan barna dabilta,  
nafar gazteak  
denon gogoan  
dirade garaiezinak. -2 aldiz-

#### V

Atzoko poza,  
askatasun hotsak,  
gaur berriz dira goibelak.  
Etsai ankerra  
zaigu itzuli,  
soldadu arrotzen lorratzak! -2 aldiz-

#### VI

Bide zaharretik  
hurbildu dira  
Iruñea hiriburura,  
baso ta oihanak,  
zelai ta ibarrak  
espainiarren menpera. -2 aldiz-

#### VII

Erreinu zaharra,  
zintzo ta ederra  
etsaiez dugu gainezka.  
Gure gazteek  
ikusi dute  
Noainen galdu den izarra. -2 aldiz-

VIII

Zeru ta lurrak  
mututu dira  
etsaiaren trumoiak,  
bazter guztietan  
hedatu dira  
izua eta dardara. -2 aldiz-

IX

Ekarri digu  
mezulariak  
berri tristea Iruñera,  
Noingo lurretan  
erori dira  
Nafarroa askearen banderak. -2 aldiz-

X

Gure gazteak,  
nafar liliak,  
lurrean hilik dautza.  
Gure herriaren  
amets guztiak  
zapuztu ditu etsaiak. -2 aldiz-

XI

Noainen ez da  
jadanik entzuten  
euskaldunen irrintzina,  
otsoen ulua,  
beleen karraka,  
nonahi dira zabaltzen. -2 aldiz-

XII

Iruñea osoa  
zaigu ilundu,  
jendea kanpora doa.  
Etxeak hustu,  
denok bidera,  
eta ihesari lotu. -2 aldiz-

XIII

Burrunba handiz  
hurbiltzen dira  
arrotz gerlari harroak.  
Hirian berriz  
ezarriko dute  
espainiarren malura. -2 aldiz-

XIV

Mende luzetan  
entzunen dira  
Noingo oihartzun tristeak,  
erresuma galdu  
ta askatasuna  
doazi gainbehera. -2 aldiz-

XV

Herri honen patua,  
beltz ta iluna,  
noizbait argituko da.  
Erreinu zaharrear  
arrapiztuko da  
euskaldunen odola. -2 aldiz-

XVI

Euskal Herriko  
seme-alabak  
poztuko dira bihotzez,  
gure ama-lurra,  
gure aberria,  
berriz euskaldun libreak! -2 aldiz-

XVII

Eta egun handian,  
denon gogoan,  
Noainen hil ziren gazteak.  
Nehoz gehiago  
ez dadin gerta  
amets gabeko gauean. -2 aldiz-

XVIII

Itxaropena  
ez da galduko  
gure etxe eta herrietan.  
Oraingo hontan  
nafar erresuma  
libre izanen da betiko. -2 aldiz-

XIX

Esna gaitezen,  
gaitezen erna,  
geroa abantzu igartzen da.  
Bildu gaitezen,  
gaitezen elkar,  
piztu da euskal galerna! -2 aldiz-

# Olasoko

Monzon handiari

Olasoko dorrean sortua,  
aitor-semeen sehaskan,  
bizimodu erraza zenuen, antza,  
hartutako bidea, berriz,  
arantzez betea, biziki gaitza.

Gazte-gaztetik egin zenuen hautua,  
euskararen eta Euskal Herriaren aitortza,  
Herri zahar eta gaixo honen patu latza,  
ama-lur maite honen zorte antzua.

Euskal nortasunaren artizarra,  
gure soro eta mendiak busti dituen langarra,  
itsasertzetatik urrun ibili den gabarra,  
hori izan zinen zu, Monzon olasotarra.

Bake garaietan langile sutsu,  
gerla tenoreetan bakea-oroit,  
guzti-guztietan jokatu zenuen gartsu,  
askatasuna baizenuen beti xede eta helburu.

Zazpi lurraldeetan zinen zinez errotu,  
ez baitzinen nehoiz gibelean baratu,  
Herria, bakea, askatasuna zenituen xerkatu,  
hemendik, hortik eta handik zinen abiatu.

Goiko zeruan zure izarra ikusten dugu,  
goi-goitik abertzaleoi keinuka ari zaigu,  
atzemanen dugun gero askearen aiduru,  
zabalduko dugun independentziaren goibururu.

Maite ditugu egin zenituen antzerkiak,  
bihotzean daramatzagu guregan loratu zenituen irriak,  
istorio ederrak, artikulu suhar eta kantu berriak,  
Itziarren semea, Lepoan hartu, eta Argalari eskainiak.

Urte luze dira galdu zenuela bizia,  
Jainko onak berekin eramana zira,  
gaurko Euskal Herrian eder ikusten dugu zure lilia,  
zu baitzira guretzat itxaropena eta askatasun hazia.

# Olentzeroren mezua

doinua: Alamoia

- 1.- Argaintxabaleta aldean,  
Aralarko mendietan,  
izar bat ikusi zuten  
hango gailurretan.
  
- 2.- Ekialdetik zetorren  
Kixmi horren berria,  
Olentzero zekarkigun,  
gure ikazkin zikina.
  
- 3.- Jentilak izutu ziren  
izarra mintzatzean,  
Kixmi bazetorkiela  
azaldu zienean.
  
- 4.- Olentzero han zegoen,  
ikatz txondorra utzita,  
aro baten amaiera  
zela hura azalduta.
  
- 5.- Jentilen azti haundiek,  
hori ez ikusi nahian,  
trikuharrietan gordetzeko  
eman zuten agindua.

- 6.- Olentzero buru haundia  
eta begi gorriak,  
zahatoa esku artean  
eta pipa ahoan.
- 7.- Ez zaitetze ikaratu!  
-esan zien amultsu-  
Ortzi-Mariren aroa  
da betiko amaitu.
- 8.- Bizitza honetan badira  
gurpil eta aroak,  
garai zaharra da bukatu  
berria zaigu agertu.
- 9.- Euskaldunak oso erne  
izan zaitetze beti!  
Siniste zaharrak hil dira  
ta berriak ageri.
- 10.- Zeruetako izarrak  
mintzo dira goxoki,  
Mikelats eta Atarrabi  
lurpean dira bizi.
- 11.- Sorgin zaharrak dira kantuz  
bilduta akelarreetan,  
Olentzero mozkortia  
irrintzika bideetan.



12.- Urtero itzuliko naiz

-dio gure Olentzerok-  
horretarako beharko dut  
ardo on ta otordu bero.

13.- Euskal Herriko umeak

ditut nik alaituko,  
urrak ta intxaurrak banatuz  
ta Gabon gaua piztuz.

14.- Ez nauzue aberatsa

ta ez opari-egile,  
osasuna ta zoriona  
banatzeko naiz zale.

15.- Horra, horra! kanta ezazue

Horra, horra Olentzero!  
Atxiki ezazue euskara,  
Bizi zaitezte euskaldun!

16.- Agur modura badoa

Olentzeroren mezua  
Bizi dadin gure euskara  
ta gure Euskal Herria!

# Olerkia beti bizirik

I

Baionatik Iruñera  
heldu da olerkia  
lapurtarren oihartzuna  
euskal hiri buruzagira  
dakarrena.

Itsasoaren gesalaz  
zipriztindurik dator,  
itsasoko galernen  
burrunbaz jantzirik,  
Lapurdiko euskaldunen mezua  
Iruñeko karriketara ekarriz.

Olerkia hitz bizia da,  
sentimenduen adierazlea,  
pertsonek arteko zubia,  
herrien arteko berri-emailea.

Olerkia ez da diruz neurtzen,  
ez da urrez erosten,  
ez da kutxa-gotorretan atxikitzen,  
olerkiak haizean egiten du habia,  
pertsonek bihotz-gogoetan,  
elkar-ulertzearen xendretan.

Txalapartaren ttakunaren antza du,  
mezua sentimenduz eta doinu bereziaz  
baititu barreiatzen.  
Bihotzaren doinua du beti bidelagun.

II

Baionatik Iruñera

heldu da olerkia,

lapurtarren bizi-nahia

euskal hiri buruzagira

dakarrena.

Mendiak zeharkatuz,

bide luzeak eginez,

oztopoak gaindituz,

erauntsien artetik atereaz,

Lapurdiko olerkia

Iruñera heldu da.

Iruñea ez dugu arrotz,

Iruñea gure odolean dago,

gure sentipen eta ametsetan,

gure oihartzun historikoetan,

elkarrekin egin nahi dugun geroan.

Eta maite dugu Iruñea,

zinez, maite dugu hiri hau,

bere karrikak, bere plazak,

bertako bestak, bertako jendeak

eta bertako olerkarien mezuak.

III

Gaur Iruñean gira,

bihar Baionan izanen zizte.

Eta olerkia hemen eta han,

Nafarroa Garaian eta Lapurdin,

Lapurdin eta Nafarroa Garaian,

baita gainerako herrialdeetan ere,

libre eta ozen ibiliko da.

Gure olerkia euskaraz blai dator,

ama-euskararen bidetik datorkizue,

Lapurdiko euskaldunen sentimenduen

bide-txigor eta erakusle.

Eta biziko da olerkia,

Iruñean eta Baionan,

Bilboko lantegietan,

Xiberoko bortüetan,

Garazi aldeko herrietan,

Gipuzkoako mendi bazterretan,

Arabako lautadetan,

Erriberako mahastietan,

euskal olerkarien bihotz-gogoetan.

Euskal olerkiak du iraunen

euskal poetek dirauteino,

gure bihotzetan sentimenduak

pizten direino.

Olerkariaren sua ez da itzaliko,

olerkariaren odola ez da agortuko,

olerkariaren mezua betiko da biziko.

Poeta, olerkari,  
jarrai ezazu hausnartzen!  
Jarrai ezazu gogoeta egiten!  
Jarrai ezazu sentipenak plazaratzen!  
Eta hori dena olerki baten egitura librean gauzatzen!

Olerkariaren mezua aldean dugun bitartean,  
bizitzak bere eginen gaitu.  
Olerkiak egiten diren bitartean,  
herriak, pertsonak, ilusioak, egitasmoak...  
bizirik eta esperantzaz beterik dira izanen.

Olerkia libre eta ozen dabilelarik,  
Ama-lurraren hatsa dugu entzungai.  
Olerkia libre eta ozen dabilelarik,  
biziarenugarra dugu iturri eta irrintzi.

Bizi bedi euskara!  
Bizi bedi euskal olerkia!  
Eta luzaz, gainera!

Iruñean, 2016ko maiatzaren 16an.

# Perlaren kantua

(Ekialdeko kantu zahar-zaharra)

Hiri Egipton dugun semeari,  
Erregeen Errege den hire aitak,  
Ekialdeko agintari den hire amak  
eta erregeorde den hire anaiak  
agur beroa damaiaagu.

Iratzarri eta jaiki hadi hire lozorrotik;  
eta hago erne gure gutuneko mezuarekin.

Oroit ezak nor haizen,  
errege baten ondorengo,  
eta begira ezak, lotura ilunez  
noren zerbitzari habilen.

Oroit ezak Egiptora  
perlaren gibeletik  
joana haizela.

Oroit itzak hire jantzi dotoreak  
eta hire tunika paregabea;  
egun batez, jantzi horiek berriz  
hire lepo gainean ezarririk  
jantzi hazaten.

Horrela jantzirik hire izena  
heroien liburuan ager dadin  
eta halaber, hire anaia  
erregeordearekin batera,  
gure erresumako oinordeko  
bilaka hadin.

## Sohütako maskaradak

Urtarrilaren hamazazpiak zuen lehena ekarri,  
Xiberoko bortüak ziren elurrez jantzirik,  
Sohütako karriketan jendea eta arizaleak han-emenka,  
hotza denon gorputz-bihotzetan.

Xirulariak eta tabalariak ziren mugitu,  
gibeletik aitzindariak eta beltzeria,  
denon atzetik herritarrak eta hurbildutakoak,  
maskaradaren poza guztion bihotz-bisaietan.

Badoaz aitzina karrikatik barrena,  
bada lehen barrikada-haustearen tenorea,  
ohiko dantzek ixiltasuna dute betetzen,  
gero bertsoek dute segida hartzen  
eta amaitzeko jan-edariek dituzte  
gorputz-bihotzak berotzen.

Betiko usaia, betiko ohitura,  
erritual zahar-zaharra,  
zazpi aldiz beteko den errituala,  
zazpi barrikada-hauste,  
bertso eta dantza, bertze hainbertze,  
kantuak eta zurrutak,  
adiskide zaharren arteko agurrak,  
adiskide berriak egiteko solasak.

Lehen hotz zena orain bero da,  
ixilik zegoena hizketan hasi da,  
gose zena asetzen hasia,  
eta lehen triste zebilena orain alai eta kantari.

Goizeko maskarada finitu da,  
bazkaltzeko tenorea iritsi da,  
jadanik inor ez da gose,  
kantuak loratzen dira aise.  
pausa ontsa dator halere.

Hiru t´erdietan sartzen dira arrabotira,  
jendeak ezker-eskuin dira jarrita,  
gatüzainak trebe astintzen du gatüa,  
zamalzain biak airoski dira dantzan.

Bühaminek eta kaüterek egiten dute buila,  
herots, zarata eta txalaparta,  
erokeriatan dabilta Pitxu eta Kabana,  
serioski ari dira marixalak eta kantiniersak,  
bandera goxoki du dantzatzen entseinari beltzak.

Hiru orenez arituko dira betiko usadioa errepika,  
dantzak, kantoreak eta bertsetak,  
gorriak, beltzak, bedezia eta artzainak.  
Bukaeran Pitxu hil zaigu,  
maskarada ari da urrentzen.  
Ihautearen legea da zikloa ixtea,  
hau da, heriotza ekartzea  
eta ondoren berriz ere piztea.



Eta orain Pitxu piztu zaigu,  
bedeziek dute itzarri eta esnatu,  
hilda zena dugu arrapiztu,  
dena da orain poza eta txistu.

Azken kantoria dugu entzun,  
moñeinak eta aintzina-pika plazaz dira nagusitu,  
hor dabilta zaharrak eta gazteak  
betiko urratsei zaizkie atxiki eta lotu,  
sinple eta doble, pika eta biga,  
ützül eta hiru eta aintzina-pika.

Xiberotarrak dantzari onak dira,  
sortuz geroztik urratsetan haziak,  
horretan aritzen dira zahar eta gazteak,  
Basabürü, Arbailako zein Pettarrakoak.  
Gero gerokoak, solasak eta kantuak,  
zurrutak eta agurrak.

Iragan da lehen maskarada,  
sohütarrek Sohütan egina,  
nagusi izan dira neskatilak,  
dantzarisa eta bühaminak.

Xibero zaharrean gauzak aldatzen ari dira,  
pastoral-maskaradetan, biba neskatilak!  
oroituko ditugu geroan  
nesken trebezia eta gogoa,  
beharra izan deneko zuloa  
ongi betetzen jakin duten arizale abilak.

# Trukada

(Jorge Luis Borges)

Ene bizitza, berriro ere, bizi ahal izango banu,  
hurrengoan, akats gutxiago egiten saiatuko nintzateke.  
Ez nintzateke horren perfektua izaten ahaleginduko,  
lasaiago ibiliko nintzateke.  
Izan naizena baino ergelagoa izanen nintzateke,  
hau da, hagitz gauza gutxi hartuko nituzke seriotasunez.  
Ez nintzateke horren txukuna izanen.

Gehiago arriskatuko nuke,  
bidaia gehiago egingo nituzke,  
arratsen edertasunaz gehiago gozatuko nuke,  
mendi-gailur gehiagotara igoko nintzateke,  
ibai gehiagotan egingo nuke igeri.

Inoiz egon ez naizen lekuetara joango nintzateke,  
izozki gehiago jango nituzke eta baba gutxiago,  
benetako arazo gehiago edukiko nuke  
eta irudimenezko gutxiago.

Ni izan nintzen, bere bizitzaren minutu guztiak  
zuhertasunez bizi izan zituen pertsona horietakoa;  
eta pozez gainezkatutako unek eduki nituen.

Baina atzerantz itzuli ahal izango banu  
soilik, momentu onez gozaten saiatuko nintzateke.  
eta jakin, jakinen duzue bizitza unez osaturikoa dela;  
beraz, ez galdu oraingoa.

Ni edozein lekutara joateko,  
beti termometroa, ur-poltsa beroa,  
aterkia eta paraxuta  
eramaten dituen horietakoa nintzen;  
baina berriro biziko banintz  
zama arinagoaz ibiliko nintzateke.

Berriro bizi ahal izango banu,  
udaberriaren hastapenetan  
oinutsik ibiltzen hasiko nintzateke,  
eta oinutsik jarraituko nuke  
udazkena amaitu bitarte.  
Nire aurrean, beste bizitza  
berri baten aukera izango banu,  
zalgurdiz gehiagotan paseatuko nintzateke,  
goizaldien ederraz gehiagotan gozatuko nuke  
eta haur gehiagorekin jolasean arituko nintzateke.

Baina ikusten duzuen bezala, larogeita bost urte ditut  
eta sobera dakit hiltzen ari naizela.

# Urrezko batela

doinua: La barca de oro

Ni banoa  
azken portu aldera,  
ta zain dut izanen  
urrezko batela.  
Ni banoa,  
heldu naiz agurtzera,  
agur maite!  
agur betirako agur!

Nere begiek  
ez zaituzte ikusiko  
ta ez duzu entzunen  
nere kantu ezia,  
nire malkoak  
itsaso aldera doaz,  
agur maite!  
agur betirako agur!

Nere begiek  
ez zaituzte ikusiko  
ta ez duzu entzunen  
nere kantu ezia,  
nire malkoak  
itsaso aldera doaz,  
agur maite!  
agur betirako agur!

Agur maite!

# Urrundu nintzen

doinua: Dabiden izarra

1

Urrundu nintzen  
arrats ilun batez,  
zu hondartzan utzirik,  
orduz geroztik  
gogoan zaitut nik,  
zu gabe naiz ezin bizirik.

2

Gure arteko  
amodio ezina  
arrazoia izan zan,  
gure arteko  
udaberri hura  
arras zapuzteko moduan.

3

Itsaso aurrean  
ezagutu zintudan,  
urrunera begira,  
ondina baten  
itxura berbera,  
zinen ezinago ederra.

4

Zu judua eta  
ni palestinarra,  
gerla baten erdian,  
amodioak  
ez zuen lekurik  
horrelako trantze tristian.

5

Erran zenidan  
joateko urrutira,  
gure odola ahazturik,  
oso hitz zuhurrak  
baina zoritxarrez  
denak izan ziren alferrik.

6

Urrundu nintzen  
arrats ilun batez,  
zu hondartzan utzirik,  
orduz geroztik  
gogoan zaitut nik,  
zu gabe naiz ezin bizirik.

# Urruña eta euskara

doinua: Xarmangarria zira

Herri polita zira aspaldin sortua,  
Lapurdikoa lilia, Untxingo bazterra.  
Historia luzeetan dager zure izena,  
urrezko hizkietan ongi idatzia.

Gipuzkoatik gertu, Nafarroa aldean,  
maitagarriagorik ez da inguruan,  
etxalde eder xuriak mendi magaletan,  
erlaitza ta labarrak itsas bazterretan.

Bertakoak zintzoak, xuxen ta abilak,  
langile, laborari, artisa, artzainak,  
jende arras argiak, umorez beteak,  
dantza ta kanturako beti prest direnak.

Urruña euskalduna izan dugu beti,  
euskararen habia, aterpe, iturri.  
Goizean jaiki eta euskaraz nahi bizi,  
ohean sartu eta euskaraz hil nahi.

Hogeita hamar urtetan gibeldu da euskara,  
frantsesak kendu dio betiko indarra.  
Hala ta guztiz ere, ez da hil mintzaira,  
hortako ikastola izan da laguna.

Euskara ez da hilen nehoiz gure herrian,  
horretarako dugu odola zainetan,  
etxean, karraketan, ikastolan bertan  
ukan dezagun beti euskara mihi puntan.

# Urruñako

kabalkada-zintzarrotsa

Ekainaren 7an, larunbatarekin,  
prestatzen hasi ginen denok elkarrekin,  
materiala goizean, errepika arratsaldean,  
kabalkada zortzietan, zintzarrotsa zortzi t'erdietan.

Hilerrri aldetik ginen jaitsi tropa ederrean,  
berrehun bat adiskide kabalkada alegeran,  
guztion buru ziren zaldizko apainak,  
andere xuriak eta marixal gorriak.

Ondoren makilaria eta banderariak,  
segidan kaskarotak eta herrikoiak,  
denak dantzari ziren kaskaroten martxan,  
jauziak eginez eta astinduz kapelak.

Ororen gibelean arizale edo aktoreak,  
zalgurdian zihoan jaun jujea, gorriz jantzita,  
ondoan usiera ta defentsako abokata,  
lekukoak, zirtzilak eta hede xuriak.

Herriko plazara ginen denok pozik sartu,  
kaskarot martxa alegera gogotik dantzatzuz,  
ostatuetan zirenek gintuzten agurtu  
zapiak edota eskuak alaiki mugituz.



Eliza igaro eta pilota-plazara  
dantzatzen joan ginen guztiok ilaretan,  
horrela sartu ginen frontoi barrura,  
jendez gainezka zegoen, jarrita armailetan.

Itzulia genuen egin martxaren aireaz,  
jendea xutik txaloka eta esku-zartaz,  
soinua, kolorea, zaldien gorotza,  
dantzariak itzulian, giroa ez zen hotza.

Berehala ekin zioten lehen gertaldiari,  
jujeak eman zion hitza usierari,  
horren pitokeriak entzunik, gero abokatari,  
eta bukatzeko han ziren bi lekukori.

Zirtzilak eta jendarmak han ziren aritu,  
korrika eta lasterka, ez ziren gelditu,  
batzuetan oinez ta bestetan txirringaz,  
ikus-entzuleak berriz barrezka ta algaraz.

Osora lau gertaldi genituen eman,  
abiadura handiko treina, euskara, euskal kultura  
beste gairen artean jorratu ziren han,  
jendea loriatuta eta gu denok gustura.

Bi urteko kontu luze izan da guretzat,  
bilkurak, errepikak eta beste lanak,  
baina herrira ekarri ditu oso fruitu onak,  
harmonia ta umorea gu guztiontzat.

Bi mila eta hamalauko ekainaren 15ean  
eskaini genuen berriz bigarren emanaldia,  
kabalkadaren oroitzapenak iraunen du luzaz  
urruñarren gogoan eta bihotzetan.

## Xahoren izarra

Gazte eta liraina,  
bidegile eta xuxentzale,  
ameslari eta idazle,  
Xiberoko seme eta igarle.  
Xaho oroit dezagun  
mendez mende,  
gizaldiz gizaldi.

Hegoaldean matxinada zen nagusi,  
euskal karlismoaren tenorea,  
Zumalakarregiren irrintzina  
mendietan barna zebilen.  
Gazte armatuak nonahi,  
gerlaren krudela euskal lurraldeetan,  
odolaren usaina edozein bazterretan,  
baioneten kargak eta fusilamenduak,  
atxiloketak, lapurreriak eta torturak  
ziren eguneroko ogia.

Agosti Xaho xiberotarra  
Iparraldean igarle eta gidari,  
iraultzaren aldeko sutsua,  
bide berrien urratzaile,  
ordena zaharraren aurkari haundia,  
justizia sozialaren maitale gartsua.

Iparralde eta Hegoalde  
biak Xahoren aztibegian.  
Ariel mezulariaren begirada pean  
biak uztartu zituen  
Pirineoaren itzal azpian,  
bi aldeak zituen ezarri txanpon berean.

Xiberoan izan dira  
Ligetx eta Etxahun biak,  
xiberotarren askazikoa zen  
Ürrüstoiko Antton Abadia,  
Matalas apeza, Bereterretxe gerlaria,  
Xahok ere piztu zuen bere izarra,  
egun dir-dir ari zaiku  
Xiberoko zohardian.

Heldu diren garai berrietan,  
Euskal Errepublika erdituko den aroan,  
zazpiak zuhaitz enbor beraren gerizpean  
bilduko eta askatuko diren aro berrian,  
Xahoren izarrak gidatuko ditu  
euskaldunon asmoak, urratsak eta bideak.  
Izar horrek eramanen gaitu euskaldunak  
libertatearen eremu zabalera,  
Xahok amestu zituen Pirineoko  
zazpi errepublikak, bat eginik,  
askatasun osora, egun handirantz,  
itsaso zabalera, ekiaren argirantz!

Biba Xaho eta Euskal Errepublika!

# Xiberua

Ama-lurraren altzoan sortua,  
zohardi ederreko izarra,  
hamaika liskarretan ondua,  
laborari eta artzainen biltzarra,  
bortüetako ziloetan bildua,  
Xaho eta Matalasen artizarra,  
hori dena eta gehiago Xiberua,  
elurra, euria, ekia eta langarra.

Zurekin gure ametsak ziren burutu,  
uhaitz, arkaitz eta haritz lerdan,  
artzain urusen bizia dugu kantatu,  
Pettarran, Arbailetan, han eta hemen ,  
Basabürüko bazterrak ez ditzagun ahaztu.  
Xiberuan bizitzeak gaitu loriatzen,  
zaila duzu, gaitza, baina ez etsitu.

Azken kobla honetan dezadan kanta  
urte luze hauetan ikusi dudana bertan,  
amodioa eta pena, askatasun falta,  
lana, umiltasuna... Xiberuko bazterretan.  
Dantzan eta kantan aritzen dira eta  
eguneroko gogorra itotzen dute kantoreetan,  
indarra, kemena, bizi-nahia hartuta  
bizi dira xiberotarrak bortü magaletan.

# Zamalzain

1

Zamaia bideetan,  
bedatsearen hastapenetan,  
elurturiko bortüetan,  
maskaradaren dantza-jauzietan.

2

Zamalzain, Zamalzain,  
euskal zentauroa,  
erdi gizona, erdi zaldia,  
Xiberoko aitzindaria.

3

Lurzain eta bizizain,  
godalet-dantzan trebea,  
jauzizain eta zamalzain,  
magiaren liluraz betea.

4

Aitzina doa gurpila,  
aitzina-pika eta brailia,  
muñeinak eta gabota,  
hor da zamalzainaren begia.

5

Xiberoko usantzetan,  
dantza eta kantoreetan,  
euskal arima da beti  
bideetan goitti eta beheitti.

6

Euskal Herria dugu ama,  
Xiberoa amets eta poza,  
eta zu zaitugu zamalzaina,  
ama-lurraren gailur eta gaina.

## Ziburuko kaio erraria

Uhainen apar gainetik  
hegaldatzen haiz,  
zeruko hodei xurien azpitik  
hegaka habil,  
zer jan xerka,  
arrazoi baten bila.

Ainitzetan ez duk deus topatzen  
hire etengabeko bilaketan,  
baina, hala eta guztiz ere,  
hor hago beti,  
hor habil beti,  
itsaso gainean,  
zeru azpian.

Ez duk kabi finkorik,  
ez duk aterpe handirik,  
hire aberria  
itsaso zabalean zagok,  
zeru urdinaren  
kotoizko hodei  
xuri ederretan.

Ziburuko kaioa,  
hegalkada pixkorreko kaioa,  
moko luzeko kaioa,  
entzuten duka  
euskaldunen azken irrintzina?  
entzuten duka  
lapurtarren azken arnasa?

Eta kaioak erantzun:  
Ez, ez duk azkena izanen,  
itsasotik datorkigun orroa  
udaberriaren iragarlea baita.

## Aurkibidea

Aitzin-solasa  
Aita  
Albako Duke zitalari  
Albizu Andereari  
Ama  
Ama-lurraren negarra  
Antton Abadiaren kantua  
Axularren itzalaren xerka  
Baiona eta Iruñea,  
Baionatik Bilborat  
Bardoitzako Anderea – 2014  
Bardoitzako Mariri  
Begiraleak, erein eta sortu  
Belaontzia  
Bizitza ametsa  
Bizitzaren katea  
Ekiaren eguna  
Ekibegia zeru gorenean  
Errekari begira  
Euskal sorginei  
Euskaldunon izarra  
Gaurko ezina biharko irria  
Gernikaren gorazarrez  
Gero askea  
Goiz eder honetan  
Gudronezko sugea  
Hodeiartzari begira Nanoen Bordako muinotik  
Ihiztari Beltzaren kantua  
Ilargi amandrea  
Inaute  
Iratzederri  
Itsasoko olatuetan barrena  
Izadia beti berritzen ari

Iz-etik hondamendira ote?  
Joanes Zuhigaraitxipi kortsarioaren kantua  
Joseph Abeberri auzapez ziburutarraren omenez eta oroitzapenez  
Korrika 2015 Urruñan  
Euskaltzale handiak. Beraiei gure esker ona!  
Kuxkuxtu, aldarria eta kantu  
Mari jainkosari  
Mariren itzulera  
Martin Perez Isasa gudari gaztea gogoan  
Mikel Kanpo Barandiaranekiko hil ondoko solasa  
Miñabaitako azken mugalaria  
Nafar haizeak  
Nafarroaren Eguna, askatasun habia  
Noaingo izar galdua  
Olasoko  
Olentzeroren mezua  
Olerkia beti bizirik  
Perlaren kantua  
Sohütako maskaradak  
Trukada  
Urrezko batela  
Urrundu nintzen  
Urruña eta euskara  
Urruñako  
Xahoren izarra  
Xiberua  
Zamalzain  
Ziburuko kaio erraria